

DONOSTIAKO UDALAREN GIZA GARAPEN IRAUNKORRERAKO
LANKIDETZA ETA HEZKUNTZAKO PLAN ZUZENDARIA

2012-2015 ALDIRAKO



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Lankidetzaren Bulegoa
Negociado de Cooperación



aurkezpena

Esku artean duzuen Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzako 2012-2015 Plana duzue. Udalekoa diot eta ez udalarena: izan ere, bere gauzatzean pertsona eta agente ezberdinek hartu dute parte. Xedea, aurretik ditugun urte hauetan Lankidetzak Atalak dituen helburuak zehaztea da. Helburu hauek irizpide politiko eta tekniko ondo dira, baina Udal Gobernuaren eta Donostiako Udaleko teknikarien irizpideez gain, Donostiako GGKE eta pertsona askoren iritzia entzun dira, Foru Aldundiarenak eta gure herrialdeko beste erakunde batzuenak gain. Izan ere, Lankidetzak ezin da mugatu beste herrialdeetako egoerak aldatzera, baizik eta garrantzitsua da bertako pertsonak eta eragileak gure lurraldeetatik haratagoko borroketan inplikatzeko. Horregatik egin nahi dugu hau elkarlanean, emaitzak gain bideak ere bere garrantzia baitauka.

Esan dut Lankidetzak ezin dela mugatu beste herrialdeetako egoerak aldatzera. Hori lortuko bagenu, ez litzateke gutxi, bejondeigula hori lortuz gero. Baina zoritxarrez lankidetzan egiten ditugun gauzak ez dira nahiko munduko egoerak aldatzeko, ahal dugun neurrian "petatxu" txiki-txikiak jartzera mugatzen gara. Horregatik, petatxu horiek jartzeaz gain, ahalegina egin beharko dugu egiten ditugun gauza horien eragina unean unekotik harago joan dadin. Gure aldaketek luzerako eragina izan beharko lukete, baina ez soilik han, baizik eta han eta hemen, eragina arlo fisikoan eta eragina adimenean. Horregatik egiten dugu Lankidetzak gain Garapenerako Hezkuntza, eta horregatik ematen diogu garrantzia bertan, Donostian, sareak sortzeari.

Garrantzitsua da bertako gizarteak garbi izatea beste herrialdeetako arazoak ez direla eurenak, baizik eta denonak. Ez gara ari hemen elkartasunaz soilik, baizik eta eragile eta onuradun jakin batzuk dituen mundu desoreka bat

konpontzeaz. Beraz, ez da, soilik, elkartasun kontu bat, baizik eta ardura kontu bat, ausartuko nintzateke erantzukizunaz ere hitz egitera. Mundu bidezkoago baten aldeko borroka ezin da mugatu nor bere etxean gauzak hobetzera, ondokoen edo urrutikoen gainetik pasata. Eta elkartasunerako grina berezirik ez duenari behintzat garbi utzi behar diogu, mundu orekatu eta justuago bat dela berme bakarra denon ongizatea zaintzeko, geurea barne. Bihotzarekin ez bada, buruarekin behintzat joka dezagun.

Emaitzak gain, bideak ere garrantzia baduela esana dut dagoeneko. Eraginak fisikoak ez ezik mentala ere izan behar duela, bai han eta hemen. Honegatik guztiagatik, Donostiatik bultzatzen dugun lankidetzak eta garapenerako hezkuntza ereduak ez da neutroa. Irizpide batzuk ditu, eta bultzatzen ditugun proiektuek irizpide horiekin eragin eremuak zipriztindu ditzaten nahi dugu. Han eta hemen. Berdintasuna, giza eskubideak, indarkeria-erakundeak... zehar-lerro hauek markatzen dituzte Donostiatik bultzatu nahi ditugun ekimenak.

Neure eta Udal Gobernu osoaren helburua izan da hau guztia aurrera eramaten laguntzea. Baina paper nagusia etxe honetako teknikariek eraman dute. Zuzendaritzatik hasi, atalburutik segi eta teknikari zein administrariarengana iritsita, lan talde bikaina osatu dute. Ez dakit kasualitateak izango ote den, baina emakumezkoak denak. Bihoakie nire aitortza eta eskerrik beroena euri. Ez nuke aipatu gabe utzi nahi ere, nire aurrekari izan zen Lankidetzak zinegotzi Ainhoa Beolaren lana. Aipatu beharko nitzuke era berean Plan honetan erakundeak (Foru Aldundia, Gipuzkoako hainbat herri...) nahiz Lankidetzako Aholku Kontseiluan edo beste foroetan esku hartu duten erakunde eta pertsonak. Bai eta zue ere, irakurle, mila esker zure interesagatik, eta hau irakurtzen ari bazara, ziuurrik dagoeneko egiten ari zaren lanagatik.

Jon Albizu Agirrezabalaga
Gizarte Ongizateko,
Lankidetzako eta Mugikortasuneko zinegotzia

ÍNDICE

4	1 AURKEZPENA
9	2 SARRERA
15	3 ZEIN DA ABIAPUNTUA?
17	3.1 Donostiako Udalaren lankidetzako ibilbidea
17	3.2 Aurreko planaren ebaluazioaren laburpena
18	3.3 Jarrera politikoa
19	3.4 Donostiako lankidetzako eta gizarte eraldaketako eragileak
23	4 NORANTZ JOAN NAHI DUGU?
25	4.1 Xedea
25	4.2 Printzipioak
25	4.2.1 Giza garapen sostengagarria eta endogenoa
25	4.2.2 Elkartasuna herrien artean eta berdintasuna
26	4.2.3 Genero berdintasuna
26	4.2.4 Erantzukidetasuna eta koherentzia
27	4.2.5 Jabetzea eta izaera estrukturala
27	4.2.6 Osagarritasuna eta koordinazioa
27	4.2.7 Parte hartzea, kalitatea, eraginkortasuna eta gardentasuna
28	4.3 Interes bereziko arloak
29	4.3.1 Giza eskubideak
29	4.3.2 Komunitateen parte hartzea eta indartzea
29	4.3.3 Genero ekitatea
30	4.3.4 Elikadura burujabetza, kontsumo kontzientea eta arduratsua
30	4.3.5 Kontsumo kontzientea eta arduratsua
30	4.4 Zehar lerroak
31	4.4.1 Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna
31	4.4.2 Ekologia iraunkortasuna
32	4.4.3 Giza eskubideak
32	4.4.4 Indarkeriarik eza aktiboa
35	5 NOLA EGINGO DUGU?
37	5.1 Parte-hartzea
37	5.1.1 Garapenerako Aholku Kontseilua
37	5.1.2 GGKEen Koordinakundea
38	5.1.3 Itunak beste sare eta plataforma batzuekin
38	5.2 Jarduteko moduak
38	5.2.1 Garapenerako lankidetzak: GGKEen eta Hegoko gizarte mugimenduen ekimenak babesteko programak
39	5.2.2 Garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza: Iparreko gizarte eraldaketarako ekimenak
39	5.2.3 Ekintza humanitarioak
40	5.2.4 Eragina Donostiako Udalean
40	5.3 Tresnak
40	5.3.1 Lehia askeko diru laguntzen deialdi publikoa
41	5.3.2 Udal lankidetzak zuzena
43	5.4 Baliabideak
43	5.4.1 Talde teknikoa
43	5.4.2 Aurrekontua
44	5.5 Garapena, segimendua eta ebaluazioa
44	5.5.1 Plan operatiboak, segimendua eta urteko oroitidazkiak
45	5.5.2 Amaierako ebaluazioa
46	5.6 Helburu estrategikoak, espero diren emaitzak eta adierazleak
57	6 ESKER ERAKUTSIK





sarrera

2008-2011 aldiko legealdia hasi zenean, Donostiako Udaleko *Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako 2008 2011 Plana* egin zen, lehenbizikoz. Dokumentu horretan jaso ziren, lehen aldiz, Udalaren lankidetzako jarduera ildoak, eta Lankidetzeta Atalaren lana kokatzeko balio izan zuen. I. plan horrek aldaketa sakonak eragin zituen Lankidetzeta Atalaren garapenerako hezkuntzako jardueren programazioan eta diru laguntzen oinarrietan, eta, horrez gain, Lankidetzako Udal Kontseilua abian jartzea ahalbidetu zuen. Kontseilu horrek lanean dihardu harrezkero.

I. planaren ebaluazioak agerian jarri du, beste hainbat ikaskuntza garrantzitsuren artean, garrantzi estrategiko handia izan duela Lankidetzeta Atalaren lana gidatzeko eta posizionatzeko dokumentu publiko bat izateak, lehenbizikoz. Dokumentu horrek sistematizazioa eta gardenetasuna ekarri dizkio sailaren lanari eta, gainera, GGKEek eta donostiarrek segimendua egiteko eta ebaluatzeko aukera dute. Bestalde, nabarmentzekoa da, halaber, lehenbiziko plana izan delako beharbada, jarrera politikoa ezartzeko eta Udalak lankidetzan garatu nahi zuen norabidea zehazteko helburua bete duela. Hala ere, eraginkortasuna falta izan du eta, horrek zailago egin du segimendua eta ebaluazioa egitea, eta funtzionaltasuna kendu dio, sailaren lana zuzentzeko orduan. Dena den, bete du bere egin-kizuna, eta bigarren planerantz aurrera egitea ahalbidetu du. Bigarren planak, aurreko planari esker ikasitakoa oinarri hartuta, xede du indarguneak sakontzea eta antzemandako gabeziak betetzea eta, horretarako, egitura eta eraginkortasuna gehituko ditu.

Garapenerako lankidetzan kalitatezko jardue-

rak garatzeko, ezinbestekoa da epe luzera planifikatutako politikak izatea, egoeraren arabera erabakietatik haratagokoak eta egonkortasuna ekarriko dutenak. Helburu horrekin sortu da *Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako II. Gida Plan* hau, 2012 2015 aldirakoa. Hain zuzen, alde batetik, gaur egungo Udal Gobernuaren funtsezko balioak eta lankidetzeta politika agertu nahi ditu, ahalik eta modurik argi, ulerker eta gardenenean; eta, bestetik, datozen lau urteetan Lankidetzeta Atalak egin behar duen lana zuzenduko du, eta herritarrei lan horren segimendua eta ebaluazioa egiteko aukera emango die. Helburu horiek betetzeko, planak parte hartzezkoa, egituratua eta nahiko eragilea izan behar du, baina malgutasunez interpretatu behar da, politiken bilakaera beharrezkoa muga ez dadin, eta datorren lau urte honetan agertuko diren ekimen berriak martxan jartzea eragotz ez dadin.

Bestalde, aipatzekoa da ez dugula nahi plana 66+6 izaterik (gai hori oso ondo dago jasota bibliografia ugari batean, adibidez plan hau egiteko kontsultatutakoan). Beraz, ez dugu dokumentu honetan sartu —ez nahita, behintzat— garapenerako lankidetzari buruzko analisi teoriko luzerik. Zein jarrera hartuko dugun, gure balioak eta printzipioak zein diren eta hortik zein helburu bete nahi dugun azaldu nahi dugu, bai eta hori guztia nork eta nola egin nahi dugun ere (zer egin nahi dugun galderaren garrantzi bera dute horiek ere).

Eta aipatutako guztia Donostiako elkarte eta gizarte mugimenduekin batera egin nahi dugu; garapenerako GKEekin zein oinarritzko beste erakunde batzuekin, besteak beste feminismoaren, ekologismoaren, antirrazismoaren eta antimilitarismoaren arloetatik neoliberalis-

mo gizagabetzaileari aurre egiten ari direnekin, eta egunez egun giza garapen eta garapen sostengagarriaren alde lanean ari direnekin, emakumezko eta gizonezko guztien ongizatea lehentasunezko helburutzat jar dadin. Datozen lau urteotako ibilbidea gertuen dugun instituzioarekin, alegia, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ere partekatu nahi dugu, ikuspegi eta helburu antzekoak baititugu. Elkarrekin egin nahi dugu bidea, eta donostiar guztiei gonbit egiten diegu bide horretan lagun egin diezaguten. Bide horretan, proposamenak eta iradokizunak egin ditzakezue, eta egingo ditugun urratsei segimendua egiteko eta ebaluatzeko aukera ere izango duzue. Prozesu hori errazago izan dadin, gure asmoak eta helburuak plan honetan jaso ditugu, bai eta egingo dugun ebaluazioaren eta segimenduaren metodologia ere.

Lehenago esan bezalaxe, II. Plan Zuzendari hau egin aurretik I. Planaren ebaluazioa egin da,

bai eta hainbat eragile sozialekin alderatu ere. Udaleko Lankidetzak Ataleko lantalde teknikoak egindako lehen zirriborroa Berdintasun eta Giza Eskubideen Ataletako langileei helarazi zitzaizkien, generoaren eta giza eskubideen aldetik errebisa zezaten. Haien jakinarazitako iradokizunak eta balarazioak txertatuta, dokumentua aberastu eta hobetu egin da. Halaber, Euskal Fondoari zegozkion ekimenak erakunde harekin alderatu ziren. Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lankidetzak Zuzendaritzaren proposamenak ere gehitu zitzaizkien dokumentuari. Gero, zirriborroa Lankidetzak Kontseiluko GGKEetara eta Euskadiko GGKE Koordinadorara bidali eta, bi lansaiotan jorrotuta, proposamenak eta iradokizunak interesgarriak jaso ziren, hein handi batean II. Plan Zuzendariaren aberasten lagundu dutenak.

Pertsona eta erakunde horien guztien laguntza eskertzen dugu, haien ekarpenak erabakigarriak izan dira eta.





zein da abiapuntua?

3.1 Donostiako Udalaren lankidetzako ibilbidea

Donostiako Udalak hainbat urte daramatza Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren arloan askotariko ekimenak egiten, gizartearen eraldaketan lankidetzan aritzeko eta hemen eta munduan giza garapen sostengagarri eta endogenoa lortzen laguntzeko gogoak bultzatuta.

1986an, Donostiak lehenbizikoz hartu zituen 50 haur saharar, Tindoufeko errefuxiatuen kanpamentuetan bizi zirenak. Eta, 1988an, Donostiaren eta Bojadorko dairaren arteko senidetzea sinatu zen; horrekin, donostiarren eta sahararren artean elkartasunezko harreman berezia sortu zen, eta bizirik dirau, gaur egun ere. Ildo horretan, 1997an, Donostiak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuen Bosniako Goražde hiriarekin.

1994an, Lankidetzaren eta Tolerantzia Bulegoa formalki eratu zen (gero izena aldatu zitzaion: Lankidetzaren), eta orduz geroztik lankidetzaren proiektuak eta Garapenerako Hezkuntzaren proiektuak garatzen dituzten erakundeak eta GGKEei laguntzen die. Besteak beste, diru laguntzarako deialdiak egiten ditu urtero, eta gizartearen eraldatzeko hainbat ekimenetan laguntzen du.

Bestalde, Donostiako Udala Euskal Fondoko (Euskal Tokiko Erakunde Lankideak Elkarteak) kide da elkarteak sortu zenetik (1996), eta bertako zuzendaritza batzordeko kide da.

2003an, Lankidetzaren Atalak geldialdi txiki bat eta atzera begirako gogoeta egiteko beharra ikusi zuen, horrek etorkizuneko lana bideratzen eta Ipar Hego elkartasun esparruan etorkizuneari jarraitu beharreko ildoak ezartzen lagunduko ziolakoan. Orobat, berdintasunetik gabeko harremanak aldatzeko eta bestelako garapen ereduak eraikitzeko erabiltzen ari zen tresnen baliozkotasuna aztertu beharra zegoela ere erabaki zuen. Horregatik, Udalak aurreko sei ur-

teetan —1997tik 2002ra bitartean— lankidetzaren egindako ibilbidea aztertu zuten, urte horietan guztietan tartean izan ziren erakunde eta eragile guztien lankidetzarekin.

Azterketa hori abiapuntu hartuta, erakunde guztiekin parte hartzeko prozesu luze bat martxan jarri zen, Nondik Nora izenekoak (2003-2005), xedetzat hartuta guztien artean lehentasunezko lan ildoak ezartzea, Udalaren lankidetzaren politika hobetze aldera. Prozesu horretan egindako lanaren emaitza gisa, bi lehentasun ezarri ziren: Lankidetzaren Aholku Kontseilua abian jartzea; eta Udalaren politikaren ildo estrategikoak ezartzea, gida plan baten bitartez.

Lankidetzaren Aholku Kontseiluak 1996. urtean ditu aurrekariak, baina 2008an suspertu eta abian jarri zen, erakunde guztiekin adostutako eta egiaztatutako araudi berria eginda; eta gaur egun ere lanean jarraitzen du.

Udalaren lankidetzaren politika *Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren 2008-2011 Planaren* definitu zen, eta bertan zehaztu ziren lankidetzaren politikaren ildo estrategikoak ere. Plan horretan esparru estrategikoa azaldu zen, eta politika horren definizioa, helburuak, irizpideak eta jarduerak ere jaso ziren. Hainbat eragileren elkarrizketaren, lanaren eta bat-etortzearen emaitza izan zen hori.

I. plana izan zen hura, eta haren ondoren honako II. plan hau egin da. Plan honek bideratu eta zuzenduko du Lankidetzaren Atalaren jarduerak datozen lau urteetan, aurreko planarekin ikasitakoa oinarri hartuta.

3.2 Aurreko planaren ebaluazioaren laburpena

2011. urte amaieran, eta kudeaketa eta komunikazio baten laguntzarekin, *Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren 2008-2011 Plana* —lehenbiziko plana— ebaluatu zen. Horretarako, bi azterketa egin ziren: bata objektiboa eta kanpoko (helburuak zenbateraino bete ziren ikusteko azterketa kuantitatiboa, ehunekotan), eta, bestea, subjektiboa (kualitatiboa, Udal Lankidetzaren tartean ziren eragileek

egina). Laburbilduz, hona hemen azterketa horretatik ateratako ondorioak eta gomendioak:

Lehentasunezko lan ildo eta sektoreei dagokienez, nabarmentzekoa da garapenerako hezkuntzari eta sentsibilizazioari eman zaien garrantzia, bai zeharka egin denari, bai erakundeek bultzatu dutenari. Ontzat jo dugu genero ikuspegia integratzeko egindako ahalegina, baina txartzat jo dugu ikuspegi hori falta izana lankidetzazuzenaren zati batean. Ebaluazioan egiaztatu da Donostia Entremundos — San Sebastian Munduen Artean programa hobetu dela; bai programaren kalitatea, bai irismena eta eragina, bai eta GGKEek egin duten programa horren erabilera ere. Oro har, ez dira hezur-mamitu planean jasotako ildo jakin batzuk, hala nola, ikastetxeekiko edo etorkinen elkarteekiko itunak sustatzea, edo Hegoaldeko jendea Donostiara ekartzeko trukeak eta bisitak sustatzea.

Lankidetzako Udal Kontseiluari bultzada eman zaio, eta martxan jarri da behin betiko, planaren indarraldian. Nahiko ondo funtzionatzen du, baina badira hobetu beharreko alderdiak ere; parte hartzeari, asistentziari eta plangintzari loturiko alderdiak, batez ere.

Hobetu behar den beste arlo bat Udaleko beste sail batzuekiko lankidetzaz eta baterako lana da; Berdintasun Sailarekin eta Giza Eskubideen Sailarekin, besteak beste. Lankidetzaz Atalak erakundez gairikiko entitateak (GGKEen Koordinakundea, Bidezko Merkataritzazko Koordinakundea...) zein sareak eta plataformak (Zero Pobrezia plataforma...) indartzeko eta bultzatzeko gogoa duela ikusi da.

Tresnei dagokienez, ontzat jo dugu diru laguntzen deialdietan egin den denbora aurre-rapena eta kalitate eskakizun handiagoak jarri izana; baina gauza batzuk falta direla ikusi dugu, hala nola, zuzenean zein proiektu babes-terabakitzeko irizpide formalak, eta prozesuen eta programen segimendu eta ebaluazio egokia egitea lekuan bertan.

Aurrekontu konpromisoari dagokionez, ez dira bete plangintzan hartutako konpromisoak (sarreraren lehen bost kapituluei dagokienaren % 0,9, gutxienez).

Bestalde, lankidetzaz diharduten hiriko beste eragile batzuei elkarriketak eta galdeketak eginez gauzatu den analisi subjektibotik ateratako informazioaren arabera, negatibotzat jo da, batetik, eragile horiek ez dutela plana behar beste

ezagutzen; eta, bestetik, eragile horiek aurrekontua kudeatzearen arloan gardenago joka dadin eskatu izana. Alderdi positiborik ere izan da; eragileek honako hauek balioetsi dituzte, zehazki: Lankidetzaz Atalak gainerako eragileekin egin duen koordinazio lana; planeko zeharlerroak GGKEekin lerrotatzea; laguntza, lehentasunez, garapenerako hezkuntzarako ematea; sailak berak antolatutako sentsibilizazio jardueren kalitatea; San Sebastian Munduen Artean programak hedapenerako eman duen bidea; eta GGKEei eskaini zaien prestakuntza.

3.3 Jarrera politikoa

Lanaren nazioarteko banaketa herrialde batzuk irabaztean espezializatzean eta beste batzuk galtzean espezializatzean datza.

Eduardo Galeano

Gure herritik haragoko beste errealitate batzuekin dugun konpromisoaren oinarria da gizarte bidezkoagoaren aldeko borrokaren ikuskeraz unibertsala, bai eta gure errealitatetik beste leku batzuetan pobrezia eta desoreka sortzen jarraitzen duten jardunbideen gairikiko erantzukizun kontzeptua ere. Beste errealitate batzuetan dugun eraginaren erantzukizun etiko horrez gair, bada errealitate ukaezin bat: ez Donostia, ez Euskal Herria, ez eta Europa ere, ez daudela mundutik aparte, eta mundu bidezkoago, berdintasunezkoago, osasungarriago eta, azken finean, bizitzeko egokiagoaren alde borroka egitea dela berme bakarria, sistema mundu arrazionalizatuagoa eraikitzeko, non herrien arteko harremanek, pertsonen mugimenduek eta pertsonen arteko harremanek ez duten oinarri izango askoren bizirauteko borroka eta gutxi batzuen berenganatzeko grina. Bada, horixe da planetan giro harmonizatuagoa eta indarkeriaz estrukturalik gabekoa sortzeko berme bakarria.

Abiapuntutzat hartzen dugu munduko injustizia eta berdintasunik gabeko egoera larria estrukturala dela, eta ez dela aldatuko, hori sortzen

duen sistema neoliberal eta patriarkala aldatu arte, eta gu geu ere aldatu arte. Beraz, oro har garapenerako lankidetzak, eta are gutxiago udal erakunde txiki batek (Donostiak, esaterako) bultzatza dezakeen lankidetzak, ez du izango inolako herrialde edo eremu geografikotako garapenari dagokionez funtsezko alderik sorrarazteko moduko eraginik. Alabaina, babes ditzakegun lankidetzak ekintzak funtsezkoak dira, Hegoaldeko emakume, gizon eta herri antolatuen eraldatze ahalmena adoretzen baitute. Eduardo Galeanoren hitzak ekarri, ordezkio aukerak izan badirela eta errealtatea eralda daitekeela erakusten duten gauza txiki horiek dira.

Gainera, gaur egungo garapen sistema neoliberal eta patriarkalak, berdintasunik ezak sortzen dituenak, eragin desberdina du emakumezkoengan eta gizonezkoengan, eta emakumezkoek jasaten dute eraginik okerrera, gizonezkoen mendea baitaude. Horregatik, ezinbestekoa da proiektuen garapenaldi guztietan genero ikuspegia sartzea, baina ez hori bakarrik; nahitaezkoa da ekintza positiboko berriazko neurriak hartzea ere, generoari loturiko aukera berdintasunik ezak deuseztatze eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko botere harremanak desagerrarazteko.

Herritarren gertuko den erakunde publiko honek, Udalak, erantzukizun handia du, bai eta oso aukera ona ere, hiri solidarioagoa eta balio zehatz batzuekiko konpromisoa duena (justizia soziala, giza eskubideak —zentzurik zabalean—, genero ekitatea, parte hartzea, ekologia iraunkortasuna eta aniztasunaren barruko bizikidetzak) guztion artean eraikitzen laguntzeko, Donostiako herritar antolatuekin batera. Laguntza eman nahi dugu sistema neoliberalaren gaineko ezagutza kritikorako eta eztabaida ireki eta eraikitzaileerako. Izan ere, sistema neoliberal horrek ekonomiaren arloan itotzen eta giza legearen ikuspegitik pobretzen ditu planetako emakumezko eta gizonezko gehienak, eta pobrezia, berdintasunik eza eta bazterketa eragiten ditu, ez soilik munduko Hegoan, baita munduko lurrean ere¹. Gure antzeko aldarrikapenak, borrorak eta erresistentziak dituzten munduko Hegoa gizarte mugimenduen zerbitzura ba-

liabideak jarri nahi ditugu. Eta hori egin nahi dugu, beren bestaldeko kideen —alegia, donostiarren— bitartez, horietan lagun egiteko, Hegoaldeko erakunde horiekin duten konplizitateagatik, hainbat urtetako esperientziagatik eta hirian duten oinarri sozialagatik. Eta hori inoiz baino gehiago balioetsi behar da orain, boluntariotza eta militantzia krisin dauden garai honetan. Donostiako Udalak garatuko dituen politika guztiak elkartasun eta giza garapen sostengagarriari loturiko balio horiekin koherente izan daitezen nahi dugu. Hortaz, gogor egingo dugu lan udal erakundearen barruan politikek koherentzia izan dezaten, eta kontra egingo diegu era aktiboan lankidetzaren aurkakoak diren politikei², gure eskumenetik kanpo dauden arloetan.

Tokiko elkartasun politikek dohain asko dituzte: herritarren gertukoak dira; haien interesekiko sentibera; politika publikoak egiteko prozesuan parte hartzea sustatzen dute; autonomoagoak dira, gobernu zentralean egiten den garapenerako lankidetzaren osoarekiko; errazago sortzen dituzte koordinazio espazioak beste sare batzuekin edo tokiko eragile batzuekin, sarean; eta, gainera, elkartasuna erantzukizun partekatutzat jotzen duten herritar aktiboak, kontzientziatuak eta mobilizatuak sortzen laguntzen dute. Gure ikuspegitik, baina, tokiko elkartasun politiken benetako balio erantsia herritarrek lankidetzaren aldarrikapenean, definitzean eta baita kudeatzean ere duten funtsezko zeregina da. Gogoeta hori inoiz baino beharrezkoagoa da gaur egun, bizi dugun ekonomia krisia dela eta.

3.4

Donostiako lankidetzako eta gizarte eraldaketako eragileak

Donostian, hainbat eragilek dihardu lanean lankidetzaren eta elkartasunaren munduan; eta, are interesgarriagoa dena: horietako asko elkarrekin harremanetan daude hainbat sare eta itunetan, eta sare eta itun horiek balio han-

1 Hegoalde globala eta Iparralde globala, herrialde aberastuak eta herrialde pobretuak aipatu ditugu, eta kontzeptu hori geografia arlotik harago doa (adibidez: Kanadako inuitak munduko Hegoa herria dira, maputxeak bezainbeste (azken herri hori, gainera, Hego geografikoan dago).

2 Lankidetzaren aurkakoak: Munduko iparretik munduko Hegoantz aktibatzen diren interferentzia negatibo eta desegituratzaileak dira.

diagoa ematen diete beren ahaleginei eta jardueren eragina areagotzen dute. Gaur egungo sistema neoliberalak ardatz du mugarik gabeko hazkunde ekonomikoa, eta pertsonak eta komunitateak suntsitzen ditu. Sistema hori eraldatzeko borrokan, elkarre sareek eta tokiko oinarrizko gizarte erakundeek funtsezko garrantzia dute.

Egoitza Donostian duten 60 GGKE inguru dira Donostiako lankidetzaren eragile nagusi, eta ezinbesteko erreferente dira, gainera, lankidetzaren eta garapen ereduaren inguruko gizarte eztabaidan. Bazkide, boluntario eta pertsona liberatu ugari hartzen dituzte barnean, eta horietako askok ibilbide luzea eta erro bereziak dituzte hainbat kolektiborekin (ikastetxeak, elkargo profesionalak, lanbide bateko kideak dira, eta abar), eremu geografikoekin (auzoak) eta/edo oso harreman estua dute gizarte mugimenduekin. GGKE horietatik ia 40 GGKEen Koordinakundearen barruan daude.

Bestalde, elkartasunean (eta ez berariaz lankidetzan) lanean diharduten oinarrizko gizarte erakunde edo "gizarte mugimendu" etiketa generikoaren barruan hainbat talde bil daitezke; hainbat motatakoak, osaera desberdina dutenak eta askotariko jarduerak egiten dituztenak. Gizarte eraldaketaren alde lan egiten dute, posible den bestelako mundua eraikitze aldera, jarrera feministetatik, ekologistetatik, antimilitaristetatik, arrazakeriaren aurkakoetatik, etorkinen ikuspegitik, aniztasun sexual eta afektiboaren alde, eta abar.

Gida plan honekin Udalak bete nahi duen helburuetako bat da Donostiako elkarteen sarea eta gizarte mugimendua indartzen laguntzea. Bereziki, GGKE txikien egoerak kezkatzen gaitu. Izan ere, GGKE txikiek oro har ez dute Hegoan lankidetzaren proiektuak gauzatzeko beharrezko kudeaketa gaitasunik izaten, baina aukera interesgarriak bai, aukera interesgarriak izaten dituzte gizarte sentsibilizatzeko eta garapenerako hezkuntzarako, mota horretako ekintzekin beti irits ezin daitekeen gizarteko sektoreetara heltzeko aukera baitute (sektore jakin bateko

profesionalak, enpresa bateko langileak, auzo jakin bateko biztanleak, unibertsitatea, eta abar).

Itunak egitea eta sareko lana sortzea funtsezko iruditzen zaigu, erakunde txikien potentziala alferrik ez galtzeko eta, oro har, gizarte mobilizazioarako gaitasuna eta horren eraginkortasuna areagotzeko. Hortaz, Donostiako Udalak mota horretako itunak egin daitezkeen adoretu eta bidea eman nahi du, bereziki GGKEek elkarren artean eta oinarrizko gizarte mugimenduekin. Horretarako, alde batetik partzuergoak sortzea bereziki baloratzen dugu, eta partzuergoei diru kopuru handiagoa emango zaie, GGKE bakar baten proiektuei baino. Beste aldetik, GGKEak indartzea bultzatzen jarraituko dugu, trebakuntza eta tailerrak eskainiz.

Lankidetzaren beste eragile gako bat Euskal Fondoa da. Donostiak elkarteak sortu zenetik parte hartze aktiboa du bertan, eta elkarteak babesten jarraituko du, hori jotzen baitu Hegoko udalerriekin lankidetzan zuzenean aritzeko oinarrizko era (ikus 5.3.2.1 puntua).

Esplizituki, ez dugu lankidetzaren eragiletzat hartu enpresei babes publikoa ematea, definizioz helburu komertzialak dituztelako, nahiz eta helburu horiek elkartasunezko marketin tekniken bitartez beren irudia hobetzea baino ez izan. Gainera, aurrerapausotzat jotzen dugu, enpresen etekinak lortzeko helburua irizpide etikoagoetan oinarritu dadin. Lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren helburu onargarri bakarra, baina, pobrezia aurka eta justizia sozialaren eta ekitatearen alde borrokatzeak izan behar du, eta inolaz ere ez dira onargarri izaera komertziala duten helburuak, ez eta elkartasun balioak manipulatzeko ere, mozkin asmodun erakundeen irudi korporatiboa hobetzeko asmoz.

Bestelakoa da hirugarren sektore edo elkartasunezko ekonomia deituriko horretako erakundeak eta enpresen kasua. Helburu soziala duten jarduerak ekonomikoak egiten dituzte, elkartasunezko jardutean, parte hartzearen, humanisten eta, funtsean, mozkin asmorik gabeko jardutean bitartez.





norantz joan nahi dugu?

4.1 Xedea

Gizartea eraldatzen laguntzea, mundu bi-dezkoagoa eraikitzeko; eta pobrezia estrukturala eta aukera berdintasunik eza errotik ken dadin laguntza ematea. Horretarako, Hegoan garapen endogenorako prozesu koherenteak eta kalitatezkoak babestuko ditugu, eta Donostian gizartea eraldatzeko ekimenak sustatuko ditugu, honako hauetan oinarrituak: giza eskubide guztietan, emakumezkoen eta gizonezkoen aukera berdintasunean, ingurumen iraunkortasunean, indarkeriarik ezean eta elkartasun internazionalistan.

4.2 Printzipioak

Plan honetako printzipioak, neurri handi batean, I. planean ezarritakoetan daude oinarrituta. Gure nortasunaren ikur dira, eta politikan dugun jarrera eta lankidetzak eta garapenerako hezkuntza ikusteko dugun ikuspegia erakusten dute. Horrez gain, abiapuntu epistemologiko dira, jarduteak, estrategiak, ekintza ildoak eta erabaki hartzea definitzeko.

4.2.1

Giza garapen iraunkorra eta endogenoa

Giza garapena pertsona guztien aukerak eta gaitasunak zabaltzeko prozesua da. Zehatzago, ardatz ditu bizi itxaropena, osasuna, hezkun-

tza eta bizimodu duina izateko beharrezko baldibideetarako sarbidea hobetzea, batetik; eta pertsona guztien giza eskubideak errespetatuko diren ingurunea sortzea eta bermatzea, bestetik. *Sostengagarri* dela esaten dugu gaur egungo belaunaldien beharrak betetzen dituen garapen prozesua, baina gure beharrak betetzeko etorkizuneko belaunaldien gaitasuna arriskuan jarri gabe. Baina benetako iraunkortasunaz ari gara; alegia, sortzen diren baldibide berriztagarriak baino gehiago erabiltzen ez dituen, eta baldibide berriztaezinen erabilera minimizatzen duena, eta, horrez gain, neurriz kanpoko garapenaren analisi kritikoak sustatzen dituen eta garapenerako estrategia alternatiboak sortzen dituen. Orobat, garapenak endogenoa behar du izan nahitaez, hau da, tokiko komunitateak izan behar du protagonista, eta komunitate horretan sortu behar da esku hartzeko ekimena. Giza Garapen Sostengagarria garapen teoria hutsa izatetik harago doa. Paradigma bat da; gizakia jartzen du ardatz, eta lotura positiboak sortzen ditu hazkunde ekonomikoaren eta pertsonen gaitasunak areagotzearen artean.

Bizimodu ona da herri indigenek giza garapen kontzeptura egin duten ekarpena, Munduko Gizarte Foroan. Printzipio sendoa da, eta honako esanahi hau du: bitzita harmonian, eta gizonezko eta emakumezkoen arteko eta gizakion eta naturaren arteko oreka. Kontzeptu hori gauzatzeak berekin dakar, jakina, komunitatean bizitzen jakitea, gutxieneko berdintasun baldintzak izatea, aurreiritziak eta esplotazioa desagererraraztea eta natura zaintzea, oreka izan dadin babestuz.

4.2.2

Elkartasuna herrien artean

Munduko edozein tokitan edonoren kontra egindako edozein injustizia barne barnean sentitzeko gaitasunak bikain azaltzen du zer den elkartasun internazionalista: Hegoko herrialdeetako herri mugimenduei eta nazio askapenerako mugimenduei babes politikoa emateko eta elkartasuna erakusteko korrantea, nazioarteko ordena ekonomiko eta politikoa salatzean oinarritua. Gaur egun indarrean den eta pobrezia sortzen duen garapen ereduaren alternatiba eraikitzeko gaitasunak lotzen du emaku-

mezkoen, gizonezkoen eta herri guztien patua. Eta elkartasun internazionalista hori topaketa gisa ikusten dugu, maila berekoen arteko harremanean; eta proposamenak, ikaskuntzak eta ideia sortzaileak Hegoalde globalak Iparralde globalari eta alderantziz egiteko aukera gisa ere bai, goitik beherako karitate laguntzako eta laguntza asistentzialistazko harremanak eta mendetasunak sortzea edo areagotzea saihestuz. Indar fisikoa, militarra edo merkatuena oinarri ez duen herri arteko harremanaren alde egiten dugu.

4.2.3

Genero berdintasuna

Justizia soziala eta berdintasuna lortzeko oztopo nagusietako bat gizonezkoen eta emakumezkoen arteko menderatze/mendekotasun botere harremanak direlako aldarrikatzen dugu elkartasun feminista. Harreman horiek gaur egungo sistema patriarkala betikotzen dute eta, beraz, gizateriaren erdiak baino gehiago —hots, emakumezkoak— kanpo uzten eta baztertzeko dituzte eta, horrenbestez, emakumezkoek ez dute aukera bera izaten garapen prozesuetan eta horien abantailatan parte hartzeko, ez eta sartzeko ere. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aukera berdintasunik eza ez zaio biologiar zor; gizartean eratu da, eta ezin da giza garapen sostengagarria planteatu ere egin, horren parez pare genero ekitaterantz eta emakumezko eta nesken ahalduzterantz —eskubidetzat hartuta— aurrera egin gabe

4.2.4

Erantzukidetasuna eta koherentzia

Gaur egun nagusi den garapen-eredua soilik mugarik gabeko hazkunde ekonomikoan dago oinarrituta, eta komunitateak eta pertsonak suntsitzen ditu, ingurumen orekaren aurka egiten du eta honako hauek sortzen ditu: pobrezia estrukturala, indarkeria, aukera berdintasunik eza eta gizarte bazterketa. Iparrereko —bai eta tokiko— politiken arteko gero eta mendekotasun handiagoak eta munduko Hegoan dituzten eraginek erakusten digute garapen politikak ez duela soilik lankidetzaren arloko gaia izan be-

har; zeharkakoa izan behar du, ekintza publiko osoan.

Mugak gorabehera, udalerrian bertan has daiteke lanean alde horretatik. Beraz, II. plan honean, Udalaren asmoa agertu nahi dugu, alegia, egingo dituen politika eta jarduera guztietan balio etikoak eta elkartasun balioak zeharkako bihurtzea, bai eta giza garapen sostengagarri eta endogenoaren paradigma ere. Ezinbestekoa da bestelako ereduak inplementatzea, alternatibak egon badaudela erakusten diguten eta pertsona guztien ongizatea lehenesten duten ereduak, hain zuzen.

Gogoeta egin dugu Antikooperazioa³ kontzeptuaren gainean. Hala esaten zaie Iparrerean sortzen diren eta Hegoan eragin negatiboa duten ekintzei, hainbat arlotan (ekonomia, politika, kultura eta ingurumena). Halakoak dira, batzuk aipatzearen, kanpo zorra, gaur egungo nazioarteko merkataritza, gaizki egindako teknologia-aren hedapena, genero berdintasunik gabeko ereduak ugaritzea, klima aldaketa eta gerra. Indar eta inpaktu izugarriaren eragin negatibo pila horren aurrean, garapenerako lankidetzaren (uneari uneko proiektuak edo epe luzeko programak), kalitate onekoa eta oso eraginkorra izan arren, baldin ez badakar berekin sistema errotik eraldatzeko eragin politikoa, “adabakia” baino ez da izango, eta behar handiko egoerak neurri batean arinduko ditu; baina oso eragin mugatua izango du, eta arrisku erantsi bat izango du: gaur egungo sistemak —berak sortzen duen pobrezia apur bat arintzeko tresnez hornitzen den sistema horrek— duen irudia zuzentzea.

Ezinbestekotzat jotzen dugu Udal Gobernuaren politikak koherenteak izango direla bermatzea, sail bakoitzak globala denaren eta tokikoa denaren arteko elkarren mendetasunaren ikuspegia barnera dezan, giza garapen sostengagarriaren (horrexek izan behar du garapen eredu, Iparrerean ere) eta pobrezia-aren aurkako borrokaren alde lan egin dezan eta zeharkako bihur daitezkeen elkartasun internazionalista eta feministaren balioak eta justizia soziala. Eta era aktiboan lan egingo dugu, horretarako. Udal Gobernuak eskumenik ez duen arloetan, alegia, eskumenak autonomia-erkidegoko gobernurenak edo estatukoarenak direnean, honako hauen bitartez egingo dugu lan: salaketen, era-

³ Ibid. 19. or.

gin politikoaren eta tokiko ekimen alternatiboak garatzearen bitartez.

Eta ez da soilik gobernuen eta erakundeen ardurara; ezin dugu ahaztu herritar bakoitzak ere banakako erantzukizuna duela. Gure ekintzek eragina dute Hegoko pertsonen bizimoduan: gauzak erosteak eta kontsumitzeak, espazio publikoan parte hartzeak eta Hegoalde globaletik datozen eta gure alboan bizi diren pertsonekin batera bizitzeak, besteak beste. Hortaz, Udalak, oro har, herritarrak hezi behar ditu, honako arlo hauetan: kontsumo kontziente eta arduratsua- ren balioak, natura babestea, antimilitarismoa eta bakezaletasuna, eta arrazakeriaren eta xenofobiaren eta genero berdintasunik ezaren kontrako borroka. Azken finean, balio humanis- tetan. Eta horien bitartez balioetsi behar dugu Donostian pertsona guztien ongizatea, gizarte- ko kezken eta, beraz, lehenetasun publikoen ar- datz hartuta.

4.2.5

Jabetzea eta izaera estrukturala

Jabetze kontzeptuak esan nahi duena zera da: kasuan kasuko komunitateak edo herriak ber- tako garapenaren eta horretarako egingo diren ekintzen gainean benetako kontrola egin behar duela. Udalak Hegoko komunitate antolatuen lehenetasunekin bat etorriko diren ekimenak bul- tzatu behar ditu, bai eta parekoen arteko itunen eta elkartasunezko laguntasun horizontaleko harremanean lagun egingo dieten ekimenak ere. Eta, horren bitartez, komunitate horietako ber- tako prozesuak errazten eta indartzen lagundu behar du, baina haiek ordeztuko asmorik gabe. Era berean, mezu horixe helarazi behar da Do- nostian, garapenerako hezkuntzako ekimenetan.

Bestalde, bai lankidetzan bai hezkuntzan, ekimenak eraldatzaileak eta, epe luzera, pixka- nakako aldaketa prozesuak izan behar dira; eta pertsonok, hangoek zein hemengook, prozesu horiei esker, eta gogoeta kritikoa eta eza- gutzaren bitartez, gure eskubideez jabetu be- har dugu, eta bete daitezzen exijitu behar dugu. Lankidetzan, ez bairik gabe, maiz ezinbestekoa izaten da behar praktikoak betetzea, baina ho- rrekin batera beti interes estrategikoak lortzera bideratutako aurrerapen paraleloa lortzeko lana etorri behar da. Hain zuzen ere, interes estra-

tegikoek emango dute bidea aldaketa egiteko, epe luzera. Era berean, behar beharrezkoa da prozesu horietan emakumezkoen parte hartzeko bidea emango zaiela bermatzea, emakumezkoen beharrak eta interesak aintzat har daitezzen pro- posamenetan eta politiketan.

4.2.6

Osagarritasuna eta koordinazioa

Udalak bultzatutako lankidetzak eta garapene- rako hezkuntza GGKEek eta lankidetzako beste eragile batzuek gauzatuko dutenaren osagarri izan behar dira. Lan egingo dugu, elkarrekin aurrera egin dezagun, sinergiak lortze eta lortu- tako eraginak maximizatzeko aldera, eta denboran eta gaitan ez gainjartzen saiaturako gara. Orobat, eragileen arteko koordinazioa sakontzea beha- rrezko da, zatiketa eta kostuak murrizteko, bai eta gardentasuna eta eraginkortasun kolektiboa sustatzeko ere. Horretarako, lehendik diren ezta- baida-lekuak indartu behar dira; besteak beste: Lankidetzako Udal Kontseilua, Euskal Fondona GGKEen Koordinakundea, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko nahiz Eusko Jaurlaritzako lankidetzak sailekiko bilera foroak.

4.2.7

Parte hartzea, kalitatea, eraginkortasuna eta gardentasuna

Donostiako Udaleko Lankidetzak Atalak, hain zuzen ere publikoa delako, gogoan izan behar du beti oso garrantzitsua dela bere ekintzak eta erabakiak publikoak, parte hartzezkoak eta gar- denak izatea. Eta donostiar guztien ahaleginari esker bildutako diru publikoa kudeatzeko ardura duenez, funtsezkoa da zorrozki kalitate eta era- ginkortasun irizpideak direnekin inbertitzea, bai zuzenean kudeatzen den partidan, bai zeharka kudeatzen denean. Garrantzitsua da, orobat, herritarrek jakitea lankidetzako zein ekintza egin diren udal funtsak erabiliz. Behar beharrezkoa da datu publikoak eta eguneratuak izatea, herri- tarrek eta elkarten sareak aukera izan dezaten udal administrazioak lankidetzarako egindako ekarpenaren segimendua egiteko eta baliozta- zteko.

Bestalde, elkarrekin zein Udalak udalerrian eta

udalerritik egiten dituzten lankidetzak ekintzetan gardentasuna izateak eta ekintza horiek hedatzeak, era berean, parte hartzea izan dadin laguntzen dute. Horrez gain, garrantzi estrategikoa dute agenda kolektiboan elkartasuna sartzeko, eta kontzientzia harrarazten duten eztabaida kritikoak eta eraikitzaileak bultzatzeko.

Parte hartzeari lotuta, baldin lankidetzak proiektuetan herritarren parte hartzea ezinbestekoa dela defendatzen badugu, eta hezkuntza proiektuetan Hegoaren ikuspegia nahitaezko dela jotzen badugu, ulergaitza litzateke donostiarren parte hartzea bultzatu nahi ez izatea beren Udaleko lankidetzak politikan, bereziki mundu bidezkoago eta berdintasunezkoagoa eraikitzeko gizartearen eraldaketan lanean ari diren parte hartzea.

Alde horretatik, 2008an urrats handia egin zen, Lankidetzako Kontseilua —Udaleko lankidetzak politikan segimendua egiteko eta balioztatzeke eztabaida lekua— martxan jartzearekin. Kontseilu horretan bideratzen dira lankidetzaren arloan herritarrek Udala Administrazioari egiten dizkieten eskaerak. Gainera, Lankidetzako Udala Kontseilua funtsezko foroa da Udalaren lankidetzak politikan gardentasuna izateko eta informazioa emateko konpromisoa betetzeko. Batzorde hori dinamizatu eta batzordearen funtzionamendua hobetu beharra dago, eraginkortasuna eta parte hartzea maximizatzea helburu hartuta. Baina kontu izan behar da GGKEen giza baliabide mugatuak gehiegi ez kargatzeko, lehendik ere karga nahikoa baitute, besteak beste, lankidetzaren eta gaur egungo boluntarioritza krisiaren kudeaketaren zama burokratikoaren ondorioz.

4.3 Interes bereziko arloak

II. plan honetan, oro har, uko egin diogu lehenetasun geografikoak ezartzeari. Sarreran azaldu bezala, abiapuntutzat hartzen dugu munduko injustizia eta berdintasunik gabeko egoera larria ez dela aldatuko, hori sortzen duen sistema aldatu arte. Beraz, oro har garapenerako lankidetzak, eta are gutxiago udal erakunde txiki batek (Donostiak, esaterako) bultzatzea dezakeen

lankidetzak, ez du izango inolako herrialde edo eremu geografikotako garapenera dagokionez funtsezko alderik sorrarazteko moduko eraginik. Orobat, gure iritziz, Nazio Batuen Garapenerako Programako Giza Garapeneraren Indizea, meritu handia duen arren per capita errentaren adierazlea zalantzan jartzeko eta analisi tresna gisa, engainagarria da garapenera laguntzeko lehenetasunak ezartzeko orduan. Izan ere, giza garapeneraren indize ertain altua duten herrialde askoren barruan oso pertsona pobretuen komunitateak edo kolektiboak daude (Latinoamerikako herrialde askotan hainbat biztanle eremu daude batez ere indigenez osatuak), eta eremu horiek inolaz ere ez dira lehenetasunezko izango, baldin irizpidea giza garapeneraren indizea bada. Bestalde, gure aburuz, erakundeek lehenetasun geografikoak ezartzeak GGKEak bultzatzen dituzten lehendik ezagutzen dituzten eremuak ez diren beste toki batzuetan lanean hastera. Horrez gain, Hegoko kideekin itunak egitera ere eramaten ditu, baina, beharbada, oinarri nahiko sendorik gabe, eta, batzuetan, konplizitate sendoa eta benetakoa eratzeko denbora nahikorik izan gabe. Hortaz, zentzuzkoago iruditzen zaigu GGKEek beraiek lanean jarraitzea ondoen ezagutzen dituzten eremuetan, hainbat urteko eskarmentua eta lotura sendoak eta konfiantza oinarritutako harremanak dituzten kideekin, eta ondoen ezagutzen dituzten eta beren burua erosoan ikusten duten arloetan. Hartara, sinergiak sortzen dira, eragin handiagoa izaten da eta eremu bat sakon ezagutzeak eta bertako kidearekiko ezagutza eta konfiantza lotura izateak dakarren abantaila aprobetxatzen da.

Donostiak, historian, harreman berezia izan du Sahararekin, eta lankidetzak hitzarmena Bosniako Gorazde hiriarekin. Harreman berezi horrek, baina, oinarri ekonomikoa du, funtsean, eta berariazko hitzarmenen bidez gauzatzen da. Berariazko hitzarmen horiek diru laguntzen deialdietatik kanpo daude, 5.3.2. puntuan azaldu bezala.

Sektoreei dagokionez, eta diru laguntzen deialdiari lotuta, plan honen asmoa ez da esku hartzeko sektore jakin batzuk lehenestea. Izan ere, hori GGKEen lanean eskua gehiegi sartzeko delako joko genuke, beste behin ere. Dena den, Udalak interes berezia du besteak beste honako helburu hauek dituzten proiektuak babesteko: giza eskubideak sustatzea eta bermatzea, parte har-

tzea, komunitateak indartzea, genero ekitatea, elikadura burujabetza eta kontsumo kontzientea eta arduratsua. Interes hori praktikan erakusteko, batetik, gehiago balioetsiko dira proiektu horiek diru laguntzen deialdiko baremazioan; eta, bestetik, gai horiek lehenetsiko dira, sailak antolatuko duen sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza jarduerak diseinatzeko orduan.

4.3.1

Giza eskubideak

Donostiako Udalak eskubideak ardatz dituzten ekimenak eta garapen programak babesteko asmoa du. Zehazki, gizakia beren azterketen erdigunean jarriko dutenak, eta giza eskubideak defendatzea eta bermatzea oinarri izango dutenak, kasuan kasuko komunitatearen edo herrialdearen garapen maila alde batera utzita. Lankidetzako esku hartzeen helburu nagusiak pertsonen eskubideak bermatzea eta pertsonak ahalduntzea izan behar du, eta ez soilik oinarriko beharrak betetzea.

Giza eskubideak zentzurik zabalenean hartzen ditugu, alegia, hiru eskubide belaunaldiak hartzen ditugu barnean: zibilak eta politikoak; ekonomikoak, sozialak eta kulturalak; eta elkartasunezkoak.

Arreta berezia jarri beharko da, emakumezkoen eskubide horiek guztiak izan eta balia ditzaten, eta beharrezko neurriak hartu beharko dira, hala izan dadin. Gainera, berariaz emakumezkoenak diren eskubideak defendatzea eta bermatzea kontuan izango dugu, hala nola, indarkeriarik gabeko bizimodua izateko eskubidea, sexu eta ugalketa eskubideak, haurdunaldiari eta erditu osteari loturiko eskubideak, eta abar. Eskubide horiek banakakoak zein kolektiboak dira, hau da, emakumeen, gizonen zein herrien eskubideak dira, tokiko kultura nortasunak eta kultura aniztasuna errespetatzea elkartasun internazionalistaren nortasun ikurra baita.

Eskubideen jabe aktiboen artean, bereziki haurrak aipatu behar ditugu, adinarengatik baztertzeko eta desabantailan egoteko aukera handiagoak dituzte eta; areago neskatilek, generoagatiko bazterketa ere pairatzen dutenez gero. Ez dago ahazterik ahulenak direla, zaurgarrienak, eta neska-mutikoak eta nerabeak direla pobrezia, aldaketa klimatikoak edota

gizarte-bazterkeriak gehien jotzen dituen kolektiboa, bai Hegoalde globalean, bai Iparralde globalean. Haurren eskubideak bermatu beharra dago (bai eta, bizirauteko eta garatzeko eskubidea bermaturik ez duten tokietan, haien gutxieneko beharrianak ase ere), belaunaldien arteko pobreziaaren sorgin-biribila behingoz apurtzearen, pobrezia eta bazterkeria kroniko bilaka ez daitezten. Izan ere, neska-mutiko eta nerabeek orain nozitzen dituzten gabezien eraginak irau badirau gaurkoaz harago, pertsonaren garapen kognitiboa eta psikomotrizitatea baldintzatzen dituen heinean.

Donostiako Udalak berariaz bultzatu nahi ditu ekimen jakin batzuk, hain zuzen, bai Hegoan bai Iparran, indarkeriarik eza aktiboko estrategien bitartez eskubide horiek betetzearen alde egingo dutenak, eta/edo gatazkak indarkeriarik erabili gabe ebazteko tresnak garatuko dituztenak. Giza eskubideen aldeko borroka giza eskubideekin koherente izango diren metodoetan oinarritu behar da, eta metodo horien funtsa giza eskubideak oro har errespetatzearekin bat datozen borrokarako metodoak sustatzea izan behar da.

4.3.2

Komunitateen parte hartzea eta indartzea

Benetako giza garapena, alegia, pertsonak eta herriak eraldaketaren xede izango dituena, lortu nahi duen ekintza orok herritarren bertako gaitasunen indartzea eta parte hartzea eta antolaketa sustatzea bultzatu behar du. Bereziki, bermatu behar da emakumezkoen parte hartzea erraztuko duten baldintzak sortuko direla, emakumezkoen beharrak eta interesak aintzat har daitezten proposamenetan eta politiketan. Aldaketa eragile banakakoak eta kolektiboak indartzearen bitartez baino ez da lortuko berdintasunik ezaren eragile diren arrazoi estrukturalak desagerraraztea. Soilik boterea hartu duten herriek, bere eskubideen eta herria pobretzen duten arrazoen jakitun direnek, eraldatu ahal izango dute beren errealitatea. Hori da herri onuradun izatetik herri subjektu izatera pasatzea, lankidetzan. Eta parte hartzea bitartekoa eta xedea da, bere horretan, parte hartzeak banakakotik haratago joan behar baitu, eta erakundera eraman behar da.

Beraz, II. plan honek parte hartze benetakoa

eta eraginkorra bultzatuko duten ekimenen alde egiten du. Parte hartze horretan, emakumezkoen eta gizonezkoen botere hartzerako laguntza emango da, banaka zein era kolektiboan, bai eta oinarrizko gizarte erakundeenerako ere, eta horren bitartez, herriei gaitasunak sortzen, zaugarritasuna murrizten eta autodeterminazioa eratzten lagunduko zaie.

4.3.3

Genero ekitatea

Genero ekitatea zeharkako lerroa da. Donostiako Udalak interes berezia du helburu nagusi genero ekitatearen alde egitea duten ekimenak babesteko. Genero ekitatetzat jotzen dugu, batetik, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna baliabideetarako sarbidean eta haien gaineko kontrolean, eta, bestetik, emakumezkoek eta gizonezkoek baldintza berdinetan parte hartzea ekonomian, politikan, gizartean eta kulturean. Pobreziak eragin handiagoa du emakumezkoengan gizonezkoengan baino, eta eragin hori larriagoa eta iraunkorragoa izaten da, gainera. Errealitate horren aurrean, gogoan izan behar da erresistentziarik sendoenak eta ekimen sortzaileenak eta berritzaileenak, askotan, emakume antolatuek egiten dituztela, pertsonen ongizatea lehenetsiko duen sistemara iragaitzearen alde lan egiten duten emakume aktibistek. Bestalde, gero eta gizonezko gehiago ari dira antolatzen, dagokien zatia lantzeko, alegia, maskulinitasun hegemonikoaren erudia alde batera uzteko eta berdintasunezkoagoak izango diren maskulinitate berrietarantzko bidea egiteko. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko botere harremanak aldatzeko, lehentasunez egin beharrekoa emakumezkoen botere hartzearen alde lan egitea da; baina garrantzitsua da, orobat, gizonak era aktiboan sartzea aldaketa horretara.

Donostiako Udalak bere egiten du borroka hori, eta berariaz honako hauek xede izango dituzten ekimenak babesteko ditu: emakumezkoen botere hartzea eta autonomia, sexu eta ugalketa eskubideak sustatzea (bereiziki, nahi gabeko haurdunaldiak prebenitzea eta haurdunaldia libreki eta doan eteteko aukera izatea eta hori aldarrikatzea), indarkeria matxistaren kontra borroka egitea eta maskulinitate hegemonikoa

deseraikitzeke eta berdintasunezko maskulinitate eredu berriak sustatzeko ekimenak.

4.3.4

Elikadura burujabetza

Elikadura burujabetza da herriek elikagai nutritoak eta kulturalki egokiak, eskuragarriak eta era sostengagarrian eta ekologikoan ekoiztiak izateko eskubidea eta beren elikadura eta ekoizpen sistema erabakitzeko eskubidea. Egungo elikadura, po brezia eta klima krisiei aurre egiteko erantzun botereetsuenetakoa elikadura burujabetza dela esan ohi da. Kontzeptu hori Via Campesina mugimenduak egin zuen ezagun, eta Hegoan nahiz Iparrean da aplikagarri, jakina. Batean zein bestean, herritarrok gizarte eraldaketarako funtsezko tresna bat dugu eskura: kontsumoa. Kontsumitzaile eta aurreztaile garenaz gero, aukera dugu gure erabaki irizpidea gure sinesmenen arabera erabiltzeko, eta iraunkortasunaren eraikuntza sustatzeko, gure erosketa eta inbertsio ereduaren bitartez.

4.3.5

Kontsumo kontzientea eta arduratsua

Donostiako Udalak era berezian babesteko ditu, batetik, kontzientzia kritikoaren sustapena eta ezagutza bultzatuko duten ekimenak, eta, bestetik, kontsumo arduratsuaren eta kontzientzearen alde egingo duten jarrerak, besteak beste: kontsumo etikoa, ekologikoa eta elkartasunezkoa, banka etikoa barne. Horrez gain, laguntza emango du sistema bidezko eta solidarioagoa (banka etikoa, bidezko merkataritzako saltokiak eta tokiko kontsumoko taldeak, adibidez) lortzearen bitartez konpromiso hori hezurramitzeko tresnak donostiarren eskura jarriko dituzten ekimenetarako ere. Hartara, aurrera egingo dugu, batetik, hemen zein han benetako giza garapen sostengagarria lortzeko bidean; eta, bestetik, kontsumitzailearen zein ekoizlearen eskubideak bermatzeko lanean. Izan ere, baldin ekoizleak bidezko ordainsaria jasotzen badu baldintza duinetan egindako lanaren ordainetan, kontsumitzaileak kalitatezko produktuak izango ditu, langileen lan eskubideak errespetatu eta ingurumena zaindu direlako bermearekin.

4.4 Zehar lerroak

Zehar lerroak giza garapenak berezko dituen alderdiak dira, eta behar beharrezkoa da lerro horiek era esplizituan sartzea giza garapenean laguntzea xede duen edozein esku hartze edo ekintza planifikatzeko, diseinatzeko, martxan jartzeko, segimendua egiteko eta balioztatzeko prozesuetako aldi guztietan. Ezin da giza garapenez hitz egin ikuspegi feministarik, ekologia iraunkortasunaren ikuspegiarik, giza eskubideen ikuspegiarik edo indarkeriarik ezaren ikuspegiarik gabe.

4.4.1

Emakumezkoen eta gizezkoen arteko berdintasuna

Izan kontu eraikitzen duzun orainaldiarekin; amesten duzun etorkizunaren antzekoa izan behar du.

Mujeres Creando kolektiboa, Bolivia

Ezer ez da neutrala, generoaz ari garenean. Genero ikuspegiarik gabeko proiektua ez da neutrala, eta emakumezkoek gizezkoekiko duten posizioa kaltetzen du. Proiektu guztiek, baita proiektu teknikoek ere, genero dimentsioa dute, gizezkoentzat, emakumezkoentzat edo bientzat direlako, eta beti izango dute eragina beste generoan. II. plan honek bere egiten du Genero Garapenean (GG) estrategia. Estrategia hori, berez, proposamen politikoa da, eta konpromisoa eskatzen du genero harreman ekitatiboak sortzeko. Horrez gain, garapen alternatiboak aldarrikatzen du, xede oinarri demokratikoen, parte hartzezkoen eta berdintasunezkoen gainean egituratutako gizartea duena, eta non emakumeak ez diren kolektibo zaugarri eta pasibotzat (laguntza ikuspegia) edo baliabide erabilgarritzat (MED ikuspegia) joko, aldaketaren eragile aktibotzat baizik. Izan ere, emakumezkoek protagonista izan behar dute, bai garapenerako estrategiak eta politikak diseinatzean, bai proiektuen plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa egitean. Eta, horrez gain, gizonen aukera berdinekin parte hartu behar dute beraiengan

ere eragina duten erabakiak hartzen diren tokietan. Hala izan dadin, baldintza egokiak eskaini behar zaizkie.

Donostiako Udalak honako ekimen hauek baino ez ditu babestuko: ikuspegi feminista dutenak, emakumezkoen eta gizezkoen arteko berdintasunik ezak aztertzea abiapuntu dutenak eta berdintasun ez horiek gainditzeko neurriak proposatzen dituztenak, genero testuinguru zehatz bakoitza ezagutzea eta balioztatzea eta garapen prozesuetan aplikatzea ahalbidetuko digun azterketa kategoria gisa erabiliz. Generoaren analisiak aukera ematen digu gizarte bakoitzak eta une bakoitzean emakumezkoen eta gizezkoen esleitzen dizkieten eginkizunak eta zereginak bereizteko, bai eta haien arteko berdintasunik gabeko harremanak ere, batzuek beste batzuk diskriminatzearen kausak identifikatzeko helburuarekin.

Analisian ez bezala, genero ikuspegiaren agerian diren genero berdintasunik ezak eta emakumezkoen eta gizezkoen arteko botere harremanak desagerrarazteko helburua duen eraldaketarako aukera politikotzat jotzen da genero. Politika bateko edozein jardueratan edo arlo jakin batean ikusten diren emakumezkoen eta gizezkoen arteko aldeak aintzat hartzean eta alde horietan arreta jartzean datza. Emakumezkoak gizezkoen mende dauden egoerak eta bien arteko botere harremanak ikusarazten laguntzen du, bai eta egoera eta harreman horiek eragiten dituzten kausak ezagutzen eta dauden arrailak gainditzeko mekanismoak bilatzen ere. Genero ikuspegia hartzeak erakunde konpromisoa dakar berekin, emakumezkoen egoera eta posizioa aldatzeko eta, hartara, genero sistema zuzenagoa, bidezkoagoa eta elkartasunezkoagoa lortzeko. Genero ikuspegia diagnosirako tresna da, formulaziorako, segimendua egiteko eta ebaluaziorako metodologia, baina ez hori bakarrik: alderdi politiko eta ideologiko eraldatzailea ere badu.

Gainera, tartean diren alderdi guztiek (Iparreko eta Hegoko erakundeak) konpromiso etikoa eta berariazko ekintzak izan behar dituzte, patriarkalak izango ez diren bestelako botere harremanak eraikitzearen aldekoak, bai egingo dituzten programetan, bai erakundearen barnean (erakundearen egituran, funtzionamenduan, parte hartzean, politiketan, antolaketa kulturalan eta antzekoetan).

4.4.2

Ekologia eta giza iraunkortasuna

Politika publikoen lehenetsuneko helburu izan behar du planeta eta bertako ekosistemak zaintzea, bai Iparrean, bai Hegoan. Ekologia iraunkortasuna, gainera, giza garapenaren bezko alderdia da. Alde horretatik, lankidetzak funtsezko eginkizuna du analisi kritikoak sustatzeko orduan, eta natura eta ekosistemek gizateriari ematen dizkieten ondasunak eta zerbitzuak zainduko direla bermatuko duten alternatibak eraikitzerakoan. Iraunkortasuneranzko bidea egiten duen eta ekologia irizpideen bitartez gauzatzen den lankidetzak (eta, gainera, prozesuetan tartean diren pertsona eta eragile guztien benetako partaidetzari lekua egiten diena) giltzarria da, ez soilik etorkizuneko belaunaldiei planeta osasungarria eta baketsua oinordetzan uzteko, bai eta gaur egun Iparrean eta Hegoan dauden pobrezia eta berdintasun ezak murrizteko ere.

Beraz, bai lankidetzak ekimenetan, bai garapenerako hezkuntza ekimenetan, bermatu behar da ez direla kaltegarri izango ekologiarako eta, ahal den neurrian, ingurumen oreka mantentzearen alde egin behar da, eta natura babesteko jarduteak eta jarrera aldaketak egiten lagundu behar da.

Alabaina, iraunkortasunaren nozioa, ulertzen dugun moduan behinik behin, ekologikoa baino areago da, giza garapenaren kontzeptua bera ere bere baitan hartzen du eta: "garapen iraunkorra aldaketa-prozesu bat da, erdigune eta funtsezko xedetzat gizakia hartzen duenez gero haren bizikaltatean progresiboki gauzatzen dena; hartara, ekitate sozialarekin eta ekoizpen-metodoen eraldaketarekin batzen du hazkunde ekonomikoa, betiere oreka ekologikoan eta eskualdeko bizi-euskarrian oinarriturik. Prozesu honek, bada, eskualdeko, nazioko eta tokiko aniztasun etniko kulturalaren errespetua dakar, bai eta herritarren sendotzea eta parte-hartzea ere, elkarbizitza baketsuan eta naturarekin bat, datozen belaunaldien bizi-kaltatea arriskuan jarri beharrean bermatzen duelarik"⁴.

4 Alides, 1994.

4.4.3

Giza eskubideak

Donostiako Udalak ez du garapena ulertzen eskubideen ikuspeirik gabe. Izan ere, eskubideen ikuspegiaren arabera, garapenaren helburua da pertsona guztiek giza eskubide guztiak izango dituztela benetan bermatzea; bai lehen belaunaldikoak, bai bigarrenekoak, bai eta hirugarrenekoak ere⁵. Beraz, Donostiako Udalak babestuko ditu, batetik, pertsonen gaitasunak indartzea sustatuko duten ekimenak, pertsona horiek beren eskubideak erreklama ditzaten (berezi emakumeenak, oraindik agerian dagoen sistema patriarkalak mendetasun egoeran jartzen dituelako); eta, bestetik, betebeharren eta erantzukizunen titular diren pertsonen eta erakundeen betebehar eta erantzukizun horiek bete ditzaten eskatuko dieten ekimenak. Lankidetzak ekintza eskatuetan, xede den biztanleria ez da onuradunzat jo behar, eskubideen eta askatasunen titulartzat baizik.

Jendea giza eskubideez jabe dadin eta giza eskubideak exiji ditzan, ezinbestekoa da erakundeak bidea ematea parte hartzeko, autonomia agertzeko eta boterea hartzeko, banakakoa den horretatik haratago. Izan ere, politiken eraldaketa sakonak ikuspegi, interes eta behar komunak dituzten pertsonak eta taldeak bateratuta baino ezin dira egin.

5 Giza eskubideak elkarri lotuta daude, elkarren mendekoak dira eta zatietan dira. Hiru belaunalditan sailkatu ohi dira: lehen belaunaldikoak dira eskubide zibilak eta politikoak; bigarren belaunaldikoak, ekonomia, gizarte eta kultura eskubideak; eta, hirugarrenekoak, elkartasuneko eskubideak (garapenerako eskubidea, ingurumen osasungarriko eskubidea, teknologia erabiltzeko eskubidea, eta abar).

4.4.4

Indarkeria-eza aktiboa

Heroi bat naizela esaten didate. Ni naizen bezalakoa izanik, ahula eta indargabea, pentsa ezazue zenbat gauza egin ditzakezuen zuek, denak elkaturik.

Ghandi

Donostiako Udalaren iritziz, giza eskubideak interes bereziko arlotzat jotzen badira, Donostian garatu edo sustatu behar den lanak helburu horiekin koherente izan behar du. Horregatik, Lankidetzat Atalak kontzientzia hartzea eta indarkeriarik ez aktiboa erabiltzea bultzatuko du, gizarteko gatazkak eta borrokak konpontzeko tresna gisa.

Gizarte mugimenduek eta GGKEek indarkeriarik gabeko bideen bitartez gauzatzen dute beren lana, kasu gehien gehienetan. Donostiako Udalaren xedea da lankidetzan lan jardute horiek era kontzientean eta apustu estrategiko gisa barnera daitezen sustatzea. Horri esker, lortu nahi dugu sustatuko dugun gizarte aldaketa koherente izan dadila garatu beharreko helburuekin, eta oinarria ez dadila izan indarren orekan (indar militarra, ekonomikoa, eta abar) oinarritutako status *quoak* onartzea soilik, baizik eta gatazkak pertsona guztiekiko errespetuzko bideen bitartez konponduko dituzten herritar kritiko eta aktiboetan oinarritutako prozesuak sortzea.

Orobat, garapenerako hezkuntza ere indarkeriarik eza aktiboari buruz sentiberatzen jarduteko esparru bat da. Han egiten dena hemen erakusteak tokiko herritarrei balioetan oinarritutako hezkuntza emateko balio behar du. Herritar kritikoei eta aktiboari buruzko irakaspena donostiarrei ere aplikatu dakieke eta aplikatu behar zaie. Bidegabekeriaren aurrean jarrera pasiboa izan ordez, bidegabekeria horren aurka egiteko antolatzea erabakitzen duten pertsonak eta erakundeak aipa daitezke adibide gisa, eta azaldu borroka hori guztia bidegabekeria gehiago sortzen edo lehendik direnak gogortzen laguntzen ez duten metodoak erabiliz egiten dutela. Indarkeriarik ez aktiboa lan egiteko modu bat izan daitekeelako gogoeta eta horrekiko sen-

tikortzea da abiapuntu, lan metodo hori estrategia kontziente eta arrazoitu gisa (eta ez soilik ohiko jardute gisa) hartzeko; eta balio hori beste leku batzuetan bultzatu eta sustatu nahi dugu, baina geure gizartean bertan ere bai.

Hortaz, indarkeriarik ez aktiboa erabiltzeak, tresnak aldatzea baino gehiago, gogoeta dakar berekin, eta era estrategikoan onartzea GGKEen eta gizarte mugimenduen lan egiteko ohiko modua. Donostiako Udalak funtsezko jotzen du indarkeriarik ezaren gaineko gogoeta eta horrekiko konpromisoa agerian jartzea eta balioestea (Donostian lankidetzan lan egiten duten erakunde gehien gehienetan sartuta dago indarkeriarik eza, dagoeneko), eta lankidetzan diharduten hiriko erakundeak adoretzen ditu balio estrategiko gisa har dezaten, eta esplizituki adieraz dezaten indarkeriazko metodoei uko egiten dietela eta ez dituztela onartzen. Horretarako, Donostiako Udalak ildo hori sartu du diru laguntzen deialdien oinarrietako baremazio irizpideetan, eta arlo horretan lanean jarraituko du.





nola egingo dugu?



5.1 Parte-hartzea

*... ia guztiok hormak egiten dituzten
igeltseroak garela, hobe litzatekeela zubiak
eraikitzea, zubiei esker kontrako ibaiertzer
joan gaitzkeela eta itzuli...*

Mario Benedetti

Herritarren eta gizarte eragileen parte hartzea funtsezkoa da Donostiako Udaleko lankidetzak politikak zehazteko, bai eta Lankidetzak Atalaren eguneroko lanerako ere; eta, era berean, Udaleko jarduera arlo guztiak tartean sartzen dituen estrategia handiagoaren zati ere bada. Estrategia hori parte hartze, aholku eske eta eztabaida dinamikak sendotzera bideratuta dago, udalaren kudeaketako erabakiak hartzeko prozesuetan herritarren iritzia sartze aldera.

Egunez egun lankidetzaren arloan lanean diharduten erakundeekin harremanetan izateak eta elkarrizketa egiteak aukera ematen digu Hegoko herri mugimenduen eskaerak eta aldarrikapenak zein diren ezagutzeko, bai eta haien gogoetak eta ekimenak ere. Era berean, Iparrean, bestelako garapen ereduak buruzko eztabaida etengabea da, eta ahots horiek Udalean entzun behar dira, eta Udalaren eguneroko lana busti behar dute. Oinarrizko gizarte erakundeekiko elkarrizketarako bide onak ditugula uste dugu, eta abian mantentzea eta elkarrizketa mekanismoak hobetzea nahi dugu, Donostian posible den beste mundu hori lortzeko lanean diharduten emakumezko eta gizonezkoen parte hartze benetakoa eta eraginkorra hobetze aldera.

Udalak uste osoa du ezinbestekoa dela parte hartzeko bideak sortzea eta mantentzea, herri-

tarrak udalaren lankidetzak politikak gauzatzean tartean sar daitezten, eta, horrez gain, udalaren kudeaketa ezagut dezaten, politika horiek bultzatzen dituen oinarri ideologikoaren gainean gogoeta egin dezaten, jarduera ereduak proposa ditzaten eta segimendua egin dezaten. Herritarren foroak —Garapenerako Lankidetzak, Hezkuntza eta Sentsibilizazioko Udal Kontseilua— esparru egokia da horretarako. Izan ere, gainera, hainbat proposamen eta ikuspegi dituzten eragileak biltzen dira foro horretan.

5.1.1 Garapenerako Aholku Kontseilua

Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzako Aholku Kontseilua Donostiako Udaleko partaidetzarako kontseiluen sarearen barruan dago, eta xede du herritarren partaidetzako egituren arteko harremana antolatzea.

Lankidetzako Aholku Kontseilua sektoreko parte hartze organoa da, eta Donostian lankidetzak eta garapenerako hezkuntzaren arloko printzipioak eta jarduerak bultzatzen ditu, giza garapen sostengagarria ikuspegiaren barruan. Halaber, GGKEek eta Lankidetzak Atalak partekatzen duten espazioa dela erakutsi da. Ahalik eta etekin handiena atera nahi diogu kontseilu horri eta, berriki GGKEen Koordinakundeak egindako balioztatzea ikusita, eta I. Udal Planaren balioztatzetik ikasi duguna oinarri hartuta, kontseiluaren eraginkortasuna eta plangintza indartu nahi ditugu. Horrekin batera, parte hartzea ere hobetu nahi dugu, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki, eta kontseiluaren ekintzek eta jarrera hartzeek donostiarrengan izango duten eragina ere hobetzeko asmoa dugu.

5.1.2 GGKEen Koordinakundeak

GGKEen Koordinakundearen helburu nagusiak dira, besteak beste, ekintzak koordinatzea, baterako jarduerak egitea eta gogoetarako espazio komunak sortzea. Sareak eta plataformak indartzeko eta lankidetzak eragileen arteko koordinazioaren alde egiteko politikarekin jarraituz, aurrerantzean ere erakunde gaitzak erakunde horri laguntzeko asmoa dugu, elkarre mugimen-

duaren zati handiarekin elkarrizketarako aukera pribilegiatua eskaintzen baitigu. Horrez gain, koordinakundearekiko elkarrizketa ere indartu nahi dugu, lankidetzaren egoerari eta lankidetzaren arloan lanean diharduten erakundeen egoerari buruzko gogoetak partekatze aldera.

Zehazki, Donostiako Udalak GGKEen Koordinakundearekin lankidetzeta hitzarmen egonkorra du, duela zenbait urtetik hona. Hitzarmen horien bidez programak diruz laguntzen dira zuzenean, lehiaketa publikoetatik at. Hitzarmenek egonkorrago egiten dituzte proiektuak, horri esker ez baitira lehia askeari atxikita izaten. Hitzarmenen bidez, funtsak esleitzen zaizkie erakundeei, ekintza zehatzak egiteko. Ekintza horiek, egin aurretik, Udalak lehentasunezkoztat jo behar ditu, eta udalaren politikako lehentasunekin bat datorrela adierazi behar du. Eta, horrez gain, gizarte oinarria Donostian duen eta ibilbide luzea eginda duen elkarte batek babestua izan behar da ekintza.

GGKEen Koordinakundeak Donostiako ia 40 GGKE biltzen ditu eta, gainera, funtsezko eginkizuna du bai erreferente gisa bai Donostiako Udalaren hizketakide gisa ere, lankidetzari loturiko gaietan. Hortaz, maila horretako entitateari babesa ematea estrategikotzat jo dugu, eta entitate hori babestuko dugu aurrerantzean ere, hitzarmen zuzenaren bidez. Horrez gain, Udalaren lokal bat koordinakundearen esku utziko dugu..

5.1.3

Itunak beste sare eta plataforma batzuekin

Donostiako Udalak sare eta plataformekin itunak egiteko asmoa du, funtsean, Lankidetzeta Atalaren eraldaketa sozialerako ekimenen programazioa era bateratuan diseinatze eta koordinatze aldera. Xede horrekin, besteak beste honako hauekin harremana izaten eta batera lan egiten saiatuko gara: Emakumeen Etxea elkartearekin, feminismoei loturiko gaiak lantzeko; Mewando sarearekin, Palestinari buruzko gaietarako; Deshazkundera kolektiboarekin edo Bidezko Merkataritzako Taldearekin, elkartasuneko ekonomiari eta kontsumo alternatiboari loturiko gaietan lankidetzan aritzeko; Fiarerekin, banka etikoari loturiko gaietarako; eta 15M mugimenduekin. Eta GGKEen Koordinakundearekin ere bai, jakina.

Zero Pobrezia plataformak aipamen berezia mezezi du, Donostian egin duen ibilbide luzeagatik eta barnean biltzen duen erakunde kopuru handiagatik. Urriaren 17, pobrezia errotik kentzearen aldeko nazioarteko egunean, plataforma horrek jarduera programa bat antolatzen du urtero. Hainbat eta hainbat gai jorratzen ditu jarduera horiei esker, betiere gizarte bidezko eta solidarioagoa lortzeko aldaketa globalaren alde. Donostiako Udalak jarduera horietan laguntzen du.

5.2 Jarduteko moduak

5.2.1

Garapenerako lankidetzeta: GGKEen eta Hegoko gizarte mugimenduen ekimenak babesteko programak

Gauza txikitxoak dira. Ez dute pobrezia desagerrarazten, ez gaituzte azpigarapenetik ateratzen, ez dituzte ekoizpen eta aldaketa bitartekoak sozializatzen, ez dituzte Ali Babaren kobazuloak desjabetzen. Baina, beharbada, gauza horiek egiteko poztasuna piztuko dute, eta horrek ekintzak ekarriko ditu. Azken finean, errealitatearen gainean lan egitea eta aldatzea da (aldaketa txikia bada ere) errealitatea eralda daitekeela erakusteko era bakarra.

Eduardo Galeano

Garapenerako lankidetzeta oso ondo egokitzen zaio Galeanoren definizioari: gauza txikitxoak dira, ez dute pobrezia desagerrarazten, baina alternatibak eraiki daitezkeela eta errealitatea eralda daitekeela erakusten dute. Garrantzitsua da gauza horiei balio izpi bat bera ere ez kentzea, eta zuzenean tartean diren pertsonentzat eta komunitateentzat duten garrantzia ez ahaztea. Baina funtsezkoa da, halaber, lankidetzazko esku hartzei esker pobrezia desagerraraziko dela ez

pentsatzea, ez baita hala; ez da hala izango, pobrezia sortzen duen sistema errotik aldatu arte. Hori gertatu bitartean, gauza txikitxo horiek ezinbestekoak dira, eta Udalaren asmoa gauza horietan laguntzea da.

II. Gida Plan honen asmoa da garapen programak bultzatzea, hain zuzen, GGKEen eta Hegoko gizarte eta herri mugimenduen eskaera zuzenari erantzunez, Giza Garapen Sostengagarri eta Endogenoaren paradigman sartuta dauden gizarte eraldaketarako eta pobrezia-aren kontra borrokatzeko epe luzeko prozesuetan lagun egingo dutenak; eta plan honetan lehenetsunez jotzen diren zehar leerroak partekatuko dituztenak. Hegoko garapenerako programa horiei laguntzeko, hurrengo atalean azalduko tresnetako edozein erabil daiteke.

5.2.2

Garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza: Iparreko gizarte eraldaketarako ekimenak

Ez luke ezertarako balioko Hegoan lankidetzak ekintzak babesteak, horren parez pare munduko Iparrean gizarte eraldaketaren alde lan egin gabe. Behar beharrezkoa da hori, sistema bidezkoagoa eta pertsona guztien ongizatea ardatz duena lortzeko bidean aurrera egiteko. Eta arlo horretan, Donostiako Udalak herritarrekiko komunikazio zuzenerako aukera pribilegiatuak ditu, herritarrengandik gertuena den erakundea baita. Beraz, orain arte egin izan den bezala, gida plan honek erabaki irmoa hartu du sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzako ekimenak bultzatzeko; alegia, gizarte eraldaketarako ekimenak, kalitatezkoak, parte hartzezkoak, egonkorak eta epe luzerakoak. Ekimen horiek, gainera, munduko errealitatearen gainean eta elkartasuneko kultura sortzearen eta pobrezia-aren eta bazterketaren kontra borrokatzeko eta giza garapen sostengagarria lortzeko konpromisodun herritartasuna eraikitzearen gainean kontzientzia kritikoa sortzean eragin eraginkorra eta iraunkorra izango dute. Gida planaren jomuga da, orobat, gure garapen ereduak eta kontsumo jarraibideak dituzten ondorioak direla eta gaur egun bizi dugun aukera berdintasunik gabeko egoeraren gainean dugun erantzukizunari buruz gogoeta eragitea (ez dago aukera

berdintasunik herrien artean, emakumezkoen eta gizonezkoen artean, eta abar).

Ekintza horien guztien barruan Hegoa aintzat hartu behar da; bestela esanda, herritarrengana helarazi behar dira Hegoko emakumezkoek eta gizonezkoek kulturaren, bizitzaren eta beren herrialdeetako garapeneraren gainean egiten dituzten interpretazioak, eta herri pobretuen irudi estereotipatuak eta etnozentrismoak alde batera utzi behar dira.

Lankidetzan bezala, GGKEak eragile indartsuenak izango dira aurrerantzean ere, Donostian gizarte eraldaketarako ekimen horiek bultzatzeko orduan. II. Gida Plan honetan, bereziki bultzatu nahi ditugu GGKE horiek osatutako sareak, bai eta haiek antzeko balio eta helburuak dituzten beste elkarte eta gizarte mugimendu batzuekin eratuko dituztenak ere, elkarte eta mugimendu horiekin sinergiak sor ditzaten, emaitza gehiago lor ditzaten eta bidea ireki dezaten tradizioz garapenerako hezkuntzako ekintzen xede izan ez diren biztanleria sektoreetarantz.

Bestalde, eta Udalak duen aipatutako abantaila baliatuz (herritarrengandik gertukoa izatea eta haiengana heltzeko irisgarritasuna), Lankidetzak Atalak berak urteroko programak egingo ditu, eta hainbat erakundek egindako jarduerak ahalik eta gehien hedatzen saiatuko da.

Iparreko garapenerako hezkuntzako programa horiek hurrengo atalean azalduko tresnetako edozein erabiliz gauza daitezke.

5.2.3

Ekintza humanitarioak

Ekintza humanitarioak ezbeharren eragina jasan duten pertsonak onik ateratzera eta haien sufrimendua arintzera bideratuta daude, bai eta gizakion duintasuna eta eskubideak babestera ere. Hasiera batean, ez dira sartzen guk babestu nahi ditugun epe luzerako ekimen moten barruan (prozesuak). Askotan zoritxarrez behar beharrezkoak direla iruditzen zaigu, baina uste dugu ez direla udal lankidetzaren gaitasunen barruan sartzen, Udalak arlo horretan gaitasun ekonomiko eta logistikoko mugatuak baititu. Bestalde, arreta osoa hedabideetan oihartzun handiena duten hondamendietan soilik jartzeko arriskua dago eta, hala eginez gero, horiek bezain larriak diren beste krisi humanitario batzuk oharkabean

joango lirateke. Horregatik, Donostiako Udalak, hasiera batean behintzat, ez du dirurik emango ekintza humanitarioko proiektuak finantzatzeko, salbuespen batekin: Sahararekiko lankidetzaz hitzarmena (ikus, geroago, 5.3.2. atala)

5.2.4

Eragina Donostiako Udalean

4.2.3 atalean (*Erantzukidetasuna eta koherentzia*) azaldu bezala, II. plan honetan azaldu nahi dugu Udalak bere politika eta jarduera guztietan balio etikoak eta solidarioak zeharkako bihurtzeko duen asmoa. Hartara, lortu nahi da sail bakoitzak bere gain har dezala globala denaren eta tokikoa denaren arteko elkarren mendetasuna, eta zeharkako bihur daitezela elkartasun internazionalista eta feminista eta justizia soziala balioak. Horretarako, honako hauei loturiko ekimenak martxan jarriko ditugu: erosketa publiko etikoa, bidezko merkataritzaren sustapena, udaleko langileak (gizonezkoak zein emakumezkoak) sentsibilizatzea, giza eskubideak urratu zaizkienei babes politikoa ematea, eta banka etikoa bultzatzea.

5.3 Tresnak

5.3.1

Lehia askeko diru laguntzen deialdi publikoa

Ahaleginak, batzen direnean, ugaritu egiten dira.

Aurreko planean bezala, honetan ere Donostiako GGKEak izango dira Udal Lankidetzaren lehenentasuneko eragile. Aurrerantzean ere, presta-

tutako finantzaketa ildoak honako hauek izango dira: lankidetzaz proiektuetarako diru laguntzetarako aldi behingo deialdiak (lehia askea) eta hitzarmenak. Hitzarmenak salbuespenegingongo dira, eta Donostiarekin harreman berezia duten herriek laguntza emateko (senidetzeak edo lankidetzarako hitzarmenak) edo garrantzi edo eragin berezia duten erakunde gaitateko entitateei laguntzeko (GGKEen Koordinakundea, adibidez) egingo dira.

II. Gida Plan honek jarraipena eman nahi dio diru laguntzen arloan gaur egun jarraitzen zaion ildoari, hainbat alderditan: deialdia urteko lehen hiruhilekoan argitaratzen jarraitu nahi dugu (egonkortasun hori mantendu nahi dugu); aurrekontuaren % 70 lankidetzara bideratu nahi dugu, eta % 30 Iparrean gizarte eraldaketako ekimenak egitera; eskatutako diru kopuruaren % 100 finantzatzen jarraitu nahi dugu; eta ordainketak eta justifikazioak egiten jarraitzeko asmoa dugu, GGKEei lana erraztuko dieten epeetan.

Orobat, deialdiaren eta inprimakien testuak sinplifikatzeko asmoa dugu, ebazpen emateko epea laburragoa izan dadin eta burokrazia erraztu dadin.

Nahiz eta deialdia urtekoa izan, errealitatea sakon ezagutzeari eta tokiko kontrako alderdieretik harreman luzea izateari esker sortuko diren garapen ekintzak, egonkorak eta epe luzeko prozesu izango direnak, babesteko gogoia dugu. Lankidetzan, ez da zentzuzkoa soilik ukaneko ekintzetan laguntzea. Atomizazioa (proiektu txiki sakabanatuak ugaritzea, denboran jarraitutasunik gabe) da udal lankidetzaren arriskuetako bat. Jakitun gara urteko deialdien karga burokratiko handia dela, eta horrek denbora eta ahalegina (biak ere urriak, gure errealitatean) eskatzen dizkie GGKEetako langileei, eta denbora eta ahalegin hori laguntzaren kalitaterako garrantzitsuago diren beste zeregin batzuetatik (hala nola, identifikazio partaidetzaduna, proiektuen segimendua edo proiektuak balioztatzea) kendu behar izaten dute. Horregatik, eta, diru kopuru txikia dugunez hainbat urtetarako proiektuen deialdiak egitea egingarri ikusten ez dugun arren, neurriak bai, neurriak hartuko ditugu, horrelako prozesuak babes daitezela. Esate baterako, puntuazio handiagoa emango diegu mota horretako programei, eta aurreko urteetan babestu ditugunak lehenetsiko ditugu, betiere

baldintzak betetzen badituzte.

Bestalde, babestuko ditugun ekintzak kalitatezkoak izan daitezela eskatuko dugu aurrerantzean ere, eta baterako proiektuak, partzuergoak eta sareak sustatuko ditugu, batez ere garapenerako hezkuntzan, eraginkortasuna areagotu dadin eta Donostiako elkarte mugimenduan sinergiak sor daitezen, beste eragile batzuk ere barnean sartuz (gizarte mugimenduak, sindikatuak, garapenerakoak ez diren beste elkarte batzuk, eta abar).

Diru laguntzen deialdiak Donostian benetako agerpena duten eta egoitza soziala bertan duten erakundeentzat izaten dira, eta hori hala dela ziurtatzeko, neurri zehatzak hartuko ditugu.

Erakundeak berak nahitaezko segimendua eta balioztatzea egingo du (barnekoa, kanpoko edo mistoa, programaren tamainaren arabera), baina, horrez gain, Lankidetzak Atalak diruz lagunduko diren proiektuen segimendua egingo du, bai urrutitik bai tokian bertan, eta balioztatzeak ere egingo ditu.

Azkenik, Donostiako Udalak konpromisoa hartu du diru laguntzen deialdiaren zenbatekoa mantentzeko eta, ahal bada, gehitzeko.

5.3.2

Udal lankidetzak zuzena

5.3.2.1

Euskal Fondoak

Donostiako Udala Euskal Fondoaren (Euskal Tokiko Erakunde Lankideak Elkarteak) bazkide da 1996. urteaz geroztik, eta parte hartze aktiboa du elkarteko gobernu organoetan. Gure iritziz, Euskal Fondoak eragile gakoak da Euskal Autonomia Erkidegoko lankidetzan, batetik, lan ibilbide luzea eta eskarmentu handia dituelako, eta ondo ezagutzen dituelako laneko toki dituen herrialdeak; eta, bestetik, hainbat udalerriri koordinatzeko egiten duen lanagatik. Hegoko udalerriekin zuzeneko lankidetzan jarduteko erarik egokiena hori dela jotzen dugu. Donostiak Euskal Fondoaren lana babestuko du aurrerantzean ere, lankidetzarako aurrekontuaren % 10 elkarte horri emanez. Lehenetsunez, II. Plan honetan interes berezikiotzat jo diren arloetako proiektuak babestuko ditu (elikadura burujabetza, ge-

nero ekitatea eta giza eskubideak), eta Euskal Fondoaren proiektu guztietan genero ekitatea, giza eskubideak eta ingurumen iraunkortasuna ildoak zeharkako bihurtzearen alde egingo du. Bestalde, ekarpena, diru ekarpena ez ezik, lankidetzak ere izan daitezke. Udalak zenbait proiektutan (berdintasun, lankidetzak eta giza eskubideen arloetan, lehenetsunez) udaleko langileei laguntzeko lankidetzak teknikoak antola daitezke.

5.3.2.2

Estatutik gabeko herriei laguntzea

Donostiako Udalak berriaz laguntza emango die beren lurraldea berreskuratzeko borrokan ari diren bi herri: sahararrei eta palestinarrei.

Mendebaldeko Sahara oraindik deskolonizatu gabe dagoen azken herria da, eta natura aberastasun handiak ditu. Marokoarren okupazioaren mende daude 1975. urteaz geroztik, eta bertako biztanle gehienak Aljeriako basamortuko eremurik babesgabeenean daude errefuxiatuta: Tindoufeko kanpamentuetan. Herri errefuxiatu horiek, bai eta Marokok okupatuta dituen lurraldeetan bizi direnek, bizi baldintza penagarriak dituzte, eta eskubiderik oinarritzkoenak urratuta izaten dituzte. Eta nazioarteko komunitateak utzikieriazko jarrera erakutsi du horren aurrean. Donostiak 1986. urtean hartu zituen lehen haur sahararrak, eta 1988an Bojadorko dairarekin senidetze hitzarmena sinatu zen. Hitzarmen horri esker, elkartasunezko harreman berezia sortu zen bi herrien artean, hots, Donostiaren eta Sahararen artean, eta harreman horrek bizirik dirau gaur egun ere. Udaro, hogeita hamar bat haur Donostiako familietan izaten dira. Eta, aldiari aldiari, hiriko dozenaka lagun Tindoufeko kanpamentuetara joaten dira bisitan, Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoari (SEAD) antolatutako elkartasun bidaiei esker.

Erro sakonak dituen harreman berezi hori dela eta, eta, sahararrek, gatazka konpontzeko itxaropen handirik ez duten arren, bizi duten pobretze eta erresistentzia egoera salbuespenezkoa ikusita, sahararrekiko lankidetzarako urteko partidak mantenduko dugu.

Bestalde, nazioartean gatazka konplexuenetakoa den israeldarren eta palestinarren arteko borrokan, egoera bidegabeak ikusten ditugu, eta nahiz eta hedabideetan etengabe agerian izan,

betikotzen ari dira, nazioarteko komunitateak axolagabekeria eta geldotasuna baino ez baitu erakutsi. Alderdi askotatik kolonialismoaren jarraipena da gatazka hori, Ekialde Ertainean kolonialismo europarraren pean sortutako arazoetatik eratorria baita, eta Mendebaldeak berebiziko garrantzi geostrategikoa duen lurralde horretan bere txokoa mantentzeko beharra eta interesa da, oraindik ere, gatazka horren funtsa. Mendebaldearen laguntzari esker, Israeliek palestinarren lurrak okupatu ditu, eta kontrol militarpean ditu bertako biztanle arabiarak. Arabiar horiek atzerritar dira beren lurretan, eta urrututa dituzte beren oinarriko eskubideak. Zisjordania eta Gaza okupatu izanak nazioarteko komunitatearen gaitzespena ekarri dio Israeli, baina Israel gai izan da bere erabakiak inposatzeko.

Donostiako Udalak oinarriko justizia kontuztat hartzen du krisi humanitario iraunkorra bizi duen eta nazioarteko komunitateak aldiro aldiro ezikusi egiten dion herri horri laguntzea, eta lehentasunez laguntza emango dio herri palestinarri, salaketa eta sentsibilizazio jardueren bitartez, nagusiki.

5.3.2.3

Lankidetzaz nazioarteko gizarte mugimenduekin

Gizarte mugimenduak alderdi estrategiko izan ohi dira gizarte eraldaketako prozesu guztietan, eta gaur egun, inoiz baino gehiago, eragile politiko esanguratsuak dira esparru guztietan, eta garapenerako lankidetzan ere bai, nola ez. Hainbat alde on dute, besteak beste: gizartea mugiarazteko gaitasuna; eskarmentua, parte hartzeke hainbat demokrazia modu ezartzeko eta lan egiteko era berri horizontalagoak eta hierarkia gutxiagokoak aplikatzeko; eta errealitatea ulertzeko eta eraldatzeko, aspaldiko ideiak berriz hausnartzeko eta buelta emateko paradigma berriak proposatzeko gaitasuna eta sormena. Donostiako Udalaren iritziz, giza garapenean eta pobrezia estrukturala errotik kentzean oinarritutako garapenerako lankidetzaz eta beste gizarte mugimendu batzuk elkarrekin egin behar dira ezinbestean, eta horien arteko itunak eta sinergiak bultzatu behar dira.

Alde horretatik, zuzenean lan egin nahi dugu, benetan esanguratsuak diren nazioarteko bi gizarte mugimenduren lanean laguntzeko:

Emakumeen Mundu Martxa eta Via Campesina.

Emakumeen Mundu Martxa ekintza feministen mundu mugimendua da, eta barnean biltzen ditu pobrezia eta emakumeen kontrako indarkeriaren iturburu diren arrazoiak desagerrarazteko helburuarekin lan egiten duten emakume eta erakunde taldeak. Era guztietako berdintasun gabeziaren kontra eta emakumeek jasaten duten diskriminazioaren aurka borrokatzen dira, eta emakume eta erakunde horien balioak honako ardatz hauen inguruan daude antolatuta: elkartasunak mundializatzea; emakumeen, emakumeen eta gizonen, eta herrien arteko berdintasuna; emakumeen lidergoa errespetatzea eta balioestea; eta emakumeen arteko eta beste gizarte mugimendu batzuekiko itunak indartzea.

Bestalde, Via Campesina nazioarteko mugimendua da, eta mundu osoan milioika nekazari, ekoizle txiki eta ertain, lurrik gabeko herri, indigena, migratzaile eta nekazaritzako langile biltzen ditu. Eskala txikiko nekazaritza sostengagarriaren alde egiten du, justizia soziala eta duintasuna sustatzeko modutzat jotzen baitu hori. Herriak eta natura suntsitzen ari diren multinazionalen eta nekazaritza negozioen aurkako jarrera irmoa du. Via Campesina mugimenduaren barruan daude Afrika, Asia, Europa eta Amerikako 70 herrialdeetako 150 bat erakunde nazional eta tokiko. Guztira, 200 milioi nekazari ingururen ordezkari da. Mugimendu autonomoa, pluralista eta kulturantzuna da, eta ez du inolako afiliazio politikorik, ekonomikorik ez bestelakorik.

Bi mugimenduekiko lankidetzaz Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera egingo dugu, eta batera egingo ditugun ekintzak urtero zehaztuko ditugu, bi erakundeen beharren eta programaren arabera.

5.3.2.4

Garapenerako hezkuntzako geure ekimenak

Donostia Entremundos – San Sebastian Munduen Artean Lankidetzaz Atalaz egindako programa da. Gaur egun, bi hilabetez behin plazaratzen da, Donostiako GGKEek eta mozkin asmorik gabeko erakundeek egindako garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazio jardueren berri emateko, bai eta Lankidetzaz Atalaren

beraren ekimenak ezagutarazteko ere. Donostia Entremundos – San Sebastian Munduen Artean munduan zer ari den gertatzen jakiteko leioa da, hain zuzen ere, programa horretako jardueren bidez honako hauek egiten baitituzte: hainbat errealitatearen kausak aztertu, gizarte globalizatzailearen gaineko eztabaida eragin, indarrean diren balioak auzitan jarri eta informazio alternatiboa eman. Horrez gain, elkartasun agenda ere bada, eta hitzaldiak, jardunaldiak, ikastaroak, antzerki lanak, kontzertuak, eztabaidak eta filmak antolatzen ditu Donostian, bai eta herrien arteko berdintasunik eza, indarkeria eta justizia bidezkoa ahaztea eragiten dituzten kausaz jabetzea sustatzeko beste hainbat jarduera ere.

Hona hemen programa horren helburuak: donostiarrei informazio alternatiboa ematea; aisialdi hezitzaile eta alternatiboaren agenda izatea; jarrera kritiko eta eraldatzailea sustatea; beste mota bateko gizartea bilatzeko konpromisozko jarrera hartzea ahalbidetuko duten elkartasun balioak bultzatzea; herritarrek Hegoko herrialdeetako errealitateaz eta guk errealitate horietan dugun inplikazioaz jabeaztea; eta herritarrek, gizartea eraldatzea ahalbidetuko duen gizarte ehun konprometitua, dinamikoa eta kritikoa sortzearen bidez, parte hartze aktiboa izan dezaten sustatea.

Programa hori, gainera, oso ontzat jo dute egindako ebaluazioetan, bai ebaluazio formaletan, bai informaletan. Horrez gain, Donostia berezi egiten du, inguruko beste hiri batzuetan ez baitago elkarte ehunaren jarduerak hedatzen laguntzeko sistemarik. Beraz, programa horrek aurrera jarraitzearen alde egiten dugu. Gainera, laster 15. urteurrena beteko du.

Bestalde, Lankidetzaren Atalak Donostian gizartea eraldatzeko ekintzak programatzera bideratuko du jarduera, eta lehenetsunez jorratuko ditu normalean GGKEek landu ohi ez dituzten gaiak (gainjartzerik izan ez dadin) eta II. Gida Plan honetako lehenetsunekin bat datozenak. Honako gai hauei loturiko gaiak lehenetsiko ditu: eragin politikoa, internazionalismoa eta nazioarteko egoera politikoren ulerkuntza. Lan horren helburu izango dira berdintasunik eza eta pobrezia sortzen duten mekanismoei loturiko nazioarteko egoera politikoko gai gakoak gaineaz eztabaida sortzea eta gai horiek ulertzen laguntzea; eta gizarte eta herri mugimenduek munduko edozein

tokitan dituzten borroken eta erresistentzien berri ematea. Ahal dugun guztietan, baterako lana egiten eta lankidetzan jarduten saiatuko gara, batetik, udaleko sailekin eta, bestetik, askotariko gaietan aktibo diren sare eta plataforma sozialekin.

Orobat, lankidetzari loturiko prestakuntza ematen jarraituko dugu entitateetako boluntarioei eta liberatuei, erakunde publikoetako teknikariei, eta herritarrei, oro har.

Horrez gain, giza eskubideak urratuta dituzten herriei eta komunitateei laguntzeko lan egingo dugu politikaren arloan, honako jarduera hauen bitartez: Udalbatzari erakunde adierazpenak proposatuta, egun berezietan udaletxean banderak jarrita eta gatazka egoeran dauden lurraldeetara –Palestinara eta Mendebaldeko Saharara, bereziki– joateko ordezkariak antolatuta.

5.4 Baliabideak

5.4.1

Talde teknikoa

Gainerako politika publikoetan gertatzen den bezala, lankidetzaren politikak gauzatzeko eta funtsak kudeatzeko ardura duten pertsonak behar bezalako gaikuntza izan behar dute eta lan horiek egiteko prestatuta izan behar dira. Horrez gain, motibazio handia izatea ere ezinbestekoa da. Gaur egun, talde teknikoa osatzen duten kide gehienak bitarteko langileak dira, baina 3 urtetik 6 urtera bitarteko eskarmentua dute Lankidetzaren Atalean eta, beraz, lanaren gaineko ezagutza eta heldutasun handia dute.

Funtsezkoa da talde teknikoak lankidetzako tresnen eta pentsamendu joera berrien gaineko ezagutza eguneratua izatea, eta Donostiako elkarte sarea, sarearen egoera, lorpenak, beharrrak eta eskariak sakon ezagutzea. Horrenbestez, plan honetan langileei etengabeko prestakuntza ematearen alde egingo dugu. Bestalde, lankidetzan euskararen erabilera bultzatzen saiatuko gara, euskara idatzia zein ahozkoa eta, horretara

rako, euskarazko termino teknikoak ezagutzeko eta hedatzeko laguntza emango dugu.

5.4.2

Aurrekontua

Krisi ekonomikoa eta gastuen murrizketa bizi ditugun garai honetan, gizarte gastua mantentzearen alde egitea garrantzitsua da, eta hala egin behar da, gizarte gastuak laguntzen baitu pertsonen baldintzak berdintzen eta bizi kalitatea hobetzen. Eta Donostiako Udalak testuinguru horretan kokatzen du lankidetzua, alegia, giza duintasunaren alde borrokatzeko berariazko modua, gure mugetatik haratago. Hori guztia egiteko konpromisoa hartu zuen Udalbatzak 2010ean, *Pobreziaren Aurkako Ituna* sinatzearekin. Itun horretan jasotakoaren arabera, genero ekitatea berekin dakarren giza garapen sostengagarriak izan behar du nazioarteko komunitatearen lehentasunezko helburu, eta, beraz, pobreziaren eta berdintasunik ezaren aurkako borroka erantzukizun kolektiboa da. Testuinguru horretan zenbait erabaki hartu ziren, hala nola, lankidetzako udal politiken kalitatea areagotzea eta garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa sustatzea, gizarte eraldaketarako tresna baliozkoa baita. Kopurutan, eginbide hori gauzatzeko bidea zen 2012rako finkatutako guztizko aurrekontuaren % 0,7ra iristea. Helburu hori betetzetik urrun gaude oraindik, eta zaila da betetzea, murrizketak nonahi egiten diren garai honetan. Hala ere, aurrekontuak murrizten diren garai honetan lankidetzarako partidari eusteko egin dugun ahaleginari esker, helburua betetzetik gertuago gaude.

Beraz, datozen lau urteetarako asmoa lankidetzarako esleitutako zenbatekoa mantentzea da, eta horixe egin nahi dugu gizarte zerbitzuekin ere. Horrez gain, Lankidetzua Atalak lan egingo du Udalean aho batez adostutako itun hori Udalaren jarduera guztia blaituko duten zeharkako politikan isla dadin, *Nazioarteko elkartasunaren eta garapenerako Euskal Autonomia Erkidegoko lankidetzua publikoaren aldeko manifestuarekin* bat. Batik bat, norgehiagoka bidezko lehia libreko diru laguntzen deialdi publikorako esleitutako zenbatekoa ez murrizten saiatuko gara.

Bestalde, alderaketak eta estatistikak egiteko

aukera emate aldera, aipatutako % 0,7ri buruz hitz egiteko orduan, GGKEen Koordinakundeak kantitate hori neurtzeko aldarrikatzen duen modua erabiliko du Donostiako Udalak (ehunekoa, guztizko aurrekontu finkatua oinarri hartuta). Dena den, Euskal Fondoak gomendaturikoa ere aipatuko du (Udalaren sarrera arruntak oinarri hartuta), alderaketak egin ahal izateko, Euskal Fondoaren neurtzeko modua beste erakunde batzuek ere erabiltzen baitute.

5.5

Garapena, segimendua eta ebaluazioa

Jarraian azaldu da zer segimendu eta balioztatze ekintza egingo diren, helburuak zenbateraino bete diren ikusteko (planean jasotako aurreikuspenarekin alderatuko dira) eta, horren bidez, plana egiten ari den aurrerapenez eta jarduerak gauzaten direnean sortuko diren zailtasunez jabetzeko; eta kronogramarekiko, aurrekontuan jasotakoarekiko edo ezarritako helburuekiko desbideratzeak zuzentzeko, baldin halakorik egon bada, lan metodologiak birplan-teatzeko edo ager daitezkeen ustekabekoen aurrean erantzuteko:

5.5.1

Plan operatiboak, segimendua eta urteko oroitidazkiak

Gida plan honetan ezarritako ildoak nolabaitzeko malgutasunez garatu behar dira, aldaketak izan baitaitezke inguruabarretan, eta ildoak ezarri zirenean hauteman ez ziren beharrak ager baitaitezke. Horretarako, plan operatiboak egingo dira urtero, eta ezarritako emaitzak lortu ahal izateko gauzatuko diren ekintza zehatzak jasoko dira plan horietan. Ekintza bakoitzaren arduraduna nor izango den, kronograma eta beharrezko baliabideak ere azaldu beharko dira.

Urtero, lehen hiruhilekoan, oroitidazki bat egingo da, Lankidetzua Atalak aurreko urtean

egindako lanaren berri emateko. Oroitidazkia-ekin batera segimendu txosten bat egingo da, eta honako hauek jaso beharko dira bertan: helburuak eta emaitzak zenbateraino lortu diren, aurreikusitako kronograma zenbateraino bete den, aurrekontuaren gauzatzea eta zehar lerroetan egindako aurrerapenak.

Urteko plan operatiboa eta aurreko urteari buruzko oroitidazkia urte bakoitzeko lehen Lankidetzako Udal Kontseiluan aurkeztu beharko dira. Segimendu txostenen analisiak Udalaren lankidetzaren politika birbideratzeko balioko du, baldin beharrezkoa bada, bai eta hurrengo urteetan plana hobeto garatzeko gomendioak sortzeko eta sistematizatzeko ere.

5.5.2

Amaierako ebaluazioa

Evaluazioa behar beharrezkoa da lankidetzako lana etengabe hobetzeko. Ikaskuntza prozesuatzat hartu behar da, eta ohiko jardute gisa sartu behar da, proiektuen gauzatzea —edo, kasu honetan, plan estrategikoen gauzatzea— amaitzean. Gainera, ebaluazioak eginkizun garrantzitsua du gardentasunez joka dadin eta gizar-tearen aurrean kontuak emateko orduan. Beraz, garrantzitsua da ebaluazioen emaitzen berri zabaltzea esku hartzen duten eragileen eta, oro har, herritarren artean.

Plan honetan amaierako kanpo ebaluazioa egitea aurreikusi da. 2015. urteko azken hiruhilekoan egingo du kanpo aholkularitza edo aditu batek, eta aukera emango du ikasitakoa hurrengo gida planera sartzeko.

Ebaluazio txostena Lankidetzako Udal Kontseiluan aurkeztuko da, eta Lankidetzaren webgunearen bitartez zabalduko.

5.6 Helburu estrategikoak, espero diren emaitzak eta adierazleak

Azken finean, garena aldatzeko egiten dugun hori gara.

Atal hau hiru zatitan egituratu dugu: helburu estrategikoak, emaitzak (helburu estrategikoari edukia ematen dioten jomuga zehatzak) eta adierazleak (emaitzak eta helburuak zenbateraino bete diren erakusten duten seinaleak)

A) Helburu estrategikoa: LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA ERALDATZAILEA ETA KALITATEZKOA BULTZATZEA

A.1. Aurrekontu konpromisoa mantendu da, era gardenean zabaldu da eta mugak ezarri zaizkio funtzionamendu kostuetara eta zuzenean esleitutako partidetara bideratutako zenbatekoari.

- Udalaren aurrekontutik lankidetzara bideratu den ehunekoa aurreko ekonomia ekitaldiko bera edo handiagoa da.
- Herritarrei jakinarazi zaie edo jendaurrean zabaldu da lankidetzarako aurrekontuaren ehunekoa Udalaren guztizko aurrekontu finkatuaren zein zati den.
- Lankidetzaren Atalaren gastu arrunta (funtzionamendu gastuak) ez da atalaren guztizko aurrekontuaren % 2 baino gehiago.
- Esleitutako zenbatekoak eta diru laguntza zuzenak emateko aintzat hartu diren irizpideak jakitera emateko prentsaurrekoa eta jakinarazpena egiten da Lankidetzako Udal Kontseiluan.

A.2. Diru laguntzen deialdirako aurrekontua mantendu edo hobetu dugu, berariazko oinarriak hobetu dira eta giza garapen sostengagarri eta endogenoko prozesuak eta Iparrean gizartea eraldatzeko ekimenak babesten dira.

- Aurrekontu konpromisoa bete dugu, eta diru laguntzen deialdietarako ehunekoa mantendu edo gehitu dugu.
- Diru laguntzen guztizko aurrekontutik gutxienez % 30 garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio programetara bideratzeko konpromisoa bete dugu.
- Berariazko oinarriak idatzi ditugu, argiago eta irisgarriago izan daitezten. Lankidetzako Udal Kontseiluan izan diren erakundeen hirutik bik gutxienez ontzat jo dituzte aldaketa horiek.
- Lantaldeak egindako hiru ekarpen proposamenetik bi gutxienez Lankidetzako Udal Kontseiluaren oinarrietara sartu dira.

- Urtero, erakundeen eskura jarri ditugu bera-riazko oinarrien ingeleserako, frantseserako eta portugesarako itzulpenak, egoitza so- ziala gaztelaniadun herrialdeetan ez duten GGKEak ez kaltetzeko helburuarekin.
- Diru laguntzen urteko deialdia aldatu dugu, babesten ditugun programei egonkortasun handiagoa emate aldera.
- Urtero, diru laguntzak emateari buruzko be- hin behineko ebazpena eskabideak aurkezte- ko epea bukatzen denetik aurrera gehienez ere lau hileko epean argitaratuko da.
- Diru laguntzen deialdi bakoitzean, diru la- guntzen deialdien bitartez babestu ditugun proiektu guztiak bat etorri dira plan honetan ezarritako printzipioekin eta ildoekin, eta giza garapen sostengagarri eta endogenoko prozesuetan txertatuta izan dira, eta/edo gizarte eraldaketarako ekimen kalitatezkoak, parte hartzezkoak, egonkorak eta epe luze- rakoak izan dira.
- Urtero, diru laguntzen oinarriak argitaratu aurretik, informazioa emateko lantegia egin dugu, eta egin daitezkeen aldaketak azaldu eta gomendioak eman ditugu, proiektuak behar bezala aurkez daitezten.

A.3. Diruz lagundutako programen segimen- du eta ebaluazio egokia egin dugu.

- Jasotako segimendu txosten guztiak arretaz aztertu ditugu, bai azalpenen zatia bai gai ekonomikoei buruzkoa, Lankidetzata Alalera iritsi eta 30 eguneko epean, gehienez ere.
- Urtero, gutxienez lankidetzako bi proiektu- ren eta bi sentsibilizazio proiekturen jato- rrizko fakturak eskatu ditugu, konpultsatze aldera.
- Lankidetzata Ataleko teknikariek lau urteetan gutxienez bi segimendu bidaia egin dituzte babesten ditugun lankidetzata programak abian diren eskualdeetara, bide onetik doazela egiaztatzeko; eta alde aurretik eta gero bilerak egin dira Donostiako GGKEekin, balorazio teknikoak egiaztatze aldera.

- Lankidetzata Ataleko teknikariek, urtero, babestutako gutxienez bi sentsibilizazio programaren segimendu zuzena egin dute, eta egindako ebaluazioaren berri eman diete, gero, GGKEei.
- Babestutako bi programaren gutxienez eba- luazio sakon bana egin da.

A.4. Donostiako Udalak Euskal Fondoan par- te hartu izanari esker, elkarre horrek babes- tutako proiektuen kalitatea hobetu da, eta elkarreari bultzada politikoa eman zaio.

- Donostiako Udalak Euskal Fondoko kide izaten jarraitu du, eta bertako Zuzendaritza Batzordean parte hartu du. Deitutako bileren gutxienez % 90ean izan da.
- Aurrekontuaren % 10 gehi elkarteko kide iza- teagatiko kuota Euskal Fondora bideratzeko aurrekontu konpromisoa mantendu dugu.
- Gida plan honetan aipatutako interes bereziko arloei loturiko programak babestu ditugu urtero, eta babes horren berri zabaldu dugu, prentsaurrekoaren, webgunearen eta beste bide batzuen bitartez.
- Donostiako Udaleko teknikariak Euskal Fondoko talde teknikoarekin lankidetzan aritu dira babestutako prozesuak indartzeko lanean. Horri esker, lankidetzata ekonomikoa ez ezik, lankidetzata teknikoa ere gauzatu da, eta hori onuragarri da bai Hegoko udalerrie- tarako, bai Donostiarako.
- Euskal Fondoak sustatutako eztabaida eta ekimenetan parte hartu du Donostiako Uda- lak, eta eztabaidarako gutxienez proposamen bat egin du.
- Donostiako Udaleko politikariek edo teknika- riek babestutako proiektuei segimendua eta ikuskapena egiteko gutxienez bidaia batean parte hartu dute..

A.5. Sahararrekin eta sahararren auziarekin harremanetan eta haiei laguntza ematen jarraitu dugu; eta lankidetzak egin ditu- gu, errefuxiatuen behar praktikoak betetzea

ahalbidetu dezaten eta haien autodeterminazio helburu estrategikoa betetzen eta okupatutako lurraldea berreskuratzen lagun dezaten.

- Lankidetzeta Atalak egindako sentsibilizazio programazioan sahararren auziaren salaketa eta hedapena bultzatu dugu, eta urtean gutxienez jarduera bat egin dugu.
- Sahararrekiko zuzeneko lankidetzarako partida bat ematen da urtean.

A.6. Laguntza zuzena eman diegu gizarte eraldaketaren eragile gako diren nazioarteko gizarte mugimenduei, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzarekin.

- Emakumeen Mundu Martxa babestu dugu, urtero erakunde horrekin adostutako ekin-tzen bitartez.
- Via Campesina mugimendua babestu dugu, urtero erakunde horrekin adostutako ekin-tzen bitartez.

A.7. Lankidetzako Aholku Kontseiluko parte hartzea areagotu eta hobetu da, bai eta kontseiluaren proposamenen irismena ere.

- Lankidetzeta Aholku Kontseiluko Batzorde Iraunkorarekin lankidetzan, zenbait metodologia gauzatu dira, osoko bilkuretan parte hartzea hobetzarren eta osoko bilkurak dinamizatzearen.
- Urtero, lanerako plan bat ezarri da, eta plan horren gutxienez % 90 bete dugu.
- Plana indarrean izan den lehen urtean, Auzoak eta Herritarren Parte hartze Sailaren babes eta laguntzarekin, Kontseilua aztertzeo parte hartzeoko prozesua egin dugu,

eta neurriak proposatu dira, Kontseiluan parte hartze handiagoa izan dadin eta hobeto funtziona dezan.

- Kontseilua erakunde askok osatzen dute, baina erakunde horiek bileretara erregulartasunez joaten ez direnez, Donostiako Udalak Kontseiluari proposatu dio erakunde parte hartzaileen zerrenda azter dezala, eta neurriak har ditzala, benetako parte hartzea ikusita.
- Donostiako Udalak ahalik eta gehien zabaldu ditu Kontseilutik atera diren jarrera hartze politikorako ekimenak, webgunearen, prentsa oharren eta/edo prentsaurrekoen bitartez.

A.8. Lankidetzeta Ataleko teknikariek pres-takuntza egokia jaso dute, eta ezagutza egu-neratu dute.

- Lankidetzeta Ataleko teknikariek lankidetzari eta/edo garapenerako hezkuntzari loturiko gutxienez bi ikastaro egin dituzte edo bi jardunalditan izan dira urtean, duten trebakuntza hobetzeko eta ezagutza eguneratzeko.
- Lankidetzeta Ataleko gutxienez bi teknikari Lankidetzako Udal Kontseiluaren osoko bilkuretan erregulartasunez izan dira.
- Urtean gutxienez bilera bat egin da GGKEen Koordinakundearekin, Donostiako GGKEen egoerari, beharrei eta aldarrikapenei buruzko informazioa partekatze aldera.
- Euskara Sailaren laguntzarekin, lankidetzaren arloko euskarazko ohiko terminoen glosategia egin eta aldiari aldiari eguneratu dugu, eta Kontseiluko GGKEei eta GGKEen Koordinakundeari eman zaie.

B) Helburu estrategikoa:

DONOSTIA GIZARTE ALDAKETA BULTZATZEA, GIZARTE SOLIDARIOAGOA ETA BERDINTASUNAREKIN ETA JUSTIZIA SOZIALAREKIN KONPROMETITUAGOA LORTZE ALDERA

B.1. Donostian elkartasunari loturiko jarduerak hedatzeko programa (Donostia Entremundos – San Sebastian Munduen Artean) bi hilabeteetan behin argitaratzen jarraitu dugu, eta baliabideen gero eta erabilera eraginkorragoa eta efizienteagoa egitea lortu dugu, eta herritarrengan eragin handiagoa ere bai.

- Donostia Entremundos – San Sebastian Munduen Artean programa bi hilabeteetan behin argitaratu da paperean, zabaltzeko gutxienez hiru jarduera izan diren guztietan. Programaren web bertsioa jarduerak sortu ahala eguneratu da, eta sortu ahala zabaldu dira posta elektronikoko bidez eta sare sozialetan ere, baldin jarduerak gutxienez hiru eguneko aurrerapenarekin jakinarazi bazaizkigu.
- Donostia Entremundos – San Sebastian Munduen Artean programaren papereko forma-tua aldatu dugu 2012ko lehen seihilekoan: Udalaren ingurumen irizpideetara egokitu da, eta kostua gutxienez % 30 murriztu da.
- Donostia Entremundos – San Sebastian Munduen Artean programa posta elektronikoko eta gizarte sareen bidez jasotzen dutenen datu basea ikusita, urtean gutxienez % 20 lagun gehiagok jasotzen du bide horietatik, eta pixkanaka paperekoa ordezkatzen ari dira. Plan honen indarraldia bukatu denerako, paperean banatu diren aleen kopurua % 20 murriztu da, eta alerik gehien posta elektronikoko, webgune eta gizarte sareen bitartez zabaldu dira.
- Donostia Entremundos – San Sebastian Munduen Artean programari jarraipena egiteko eta eragina neurtzeko programa bat jarri da abian.

- Planaren indarraldiaren bukaeran, Donostia Entremundos – San Sebastian Munduen Artean programaren ebaluazio sakona egin da..

B.2. Lankidetzat Atalak, beste sail eta erakunde batzuekin eta gizarte mugimenduarekin lankidetzan, gizarte eraldaketarako jardueren programazioa bultzatu du hirian, gida plan honetan interes bereziko zatik jo diren arloei loturiko gaien inguruan. Eta gero eta eragin, eraginkortasun, efizientzia eta osagarritasun handiagoa lortzen ari gara GGKEek hirian egiten dituzten jarduerekin. Programazioaren zati bat deszentralizatu egin dugu, mota horretako jardueretan parte hartu ohi ez duen jendearengana iristeko.

- Lankidetzat Atalak, Giza Eskubideetarako Departamentuarekin eta, lehentasunez, gizarte mugimenduko sare edo plataforma batekin lankidetzan, gai bati buruzko gutxienez programa bat antolatu du, plan honetan interes bereziko zatik jo diren arloei lotuta. Programa horietako bakoitzean, hartzaila jakin batzuentzako (eta ez herritar guztientzat, oro har) gutxienez jarduera bat sartu da.
- Urtero, Lankidetzat Atalak gutxienez sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzako jarduera bat antolatu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Lankidetzat Zuzendaritzarekin batera.
- Urtero, Lankidetzat Atalak gutxienez sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzako jarduera bat antolatu du Udaleko beste sail batzuekin batera (Berdintasun Saila, Gazteria, Ingurumena, Kultura, eta abar).
- Antolatutako jardueren segimendua egiteko eta eragina neurtzeko sistema bat ezarri dugu.

- Jardueretan izan direnen balioztatzeen % 80k ontzat jo ditu jarduerak.
- Plan honen indarraldia amaitu baino lehen, gutxienez bi jarduera egin dira ohiko auzoetatik kanpo (Altza, Añorga, Bidebieta, Intxaurren, Loiola, Martutene eta Ulija).
- Plan honen indarraldia bukatu baino lehen, gutxienez bi sentsibilizazio jarduera egin dira, Euskal Fondoarekin lankidetzan.

B.3. SEADen Lagunen Elkartearekin lankidetzan, urtero, haur sahararrak hartzeko Oporrak bakean programa eta sahararrei laguntzeko elkartasun karabana egin ditugu; eta bi aukera horiek baliatu ditugu sahararren eskubideen berri emateko eta aldarrikatzeke, eta bizi duten egoera politikoa eta humanitarioa salatzeke.

- Urtero, Oporrak bakean programa gauzatu dugu, eta Donostiako familiek gutxienez 30 haur saharar hartu dituzte, udan.
- Abegi familiekin informazioa emateko egindako bileretan, herri sahararren egoera politikoaren eta sozialaren berri eman diegu.
- Urtean zehar, abegi familiei unean unean informazioa eman zaie Donostian egin diren sahararrei laguntzeko ekintzei buruz.

- Sahararrei laguntzeko elkartasun karabana diruz laguntzen jarraitu dugu, eta karabanaren hedapena eta, Donostiatik abiatu denean, karabanaren irteera erraztu ditugu. Karabanak eragina du errefuxiatuen egoera humanitarioa hobetzean, baina hortik harago ere erabili da: bozgorailu gisa ere baliatu da, herri sahararren egoera salatzeke eta haien giza eskubide guztiak berma daitezen eskatzeko.

B.4. Donostiarren artean ohitura aldaketa bultzatu dugu, kontsumo sostengagarri, ekologiko eta elkartasunezkoagoa egin dadin.

- Planaren indarraldia amaitu denerako, kontsumo sostengaezinaren aurrean dauden alternatiben berri emateko gutxienez bi hedapen kanpaina egin dira, gizarte mugimenduarekin lankidetzan; besteak beste: banka etikoa, bidezko merkataritza eta kontsumo kooperatibak.
- Udalean, GGKEtan nahiz donostiarren artean banka etikoaren zerbitzuak ezagut eta erabil daitezen bultzatu da.
- Plan honen indarraldia bukatu denerako, Donostiak adierazle guztiak bete ditu, eta Ciudades por el Comercio Justo sareko (Bidezko merkataritzaren aldeko hirien sarea) kide da.

C) Helburu estrategikoa:

UDAL POLITIKETAN IRIZPIDE ETIKOAK ETA SOLIDARIOAK ZEHARKAKO BIHURTZEA (POLITIKA KOHERENTZIA)

C.1. Udaleko hainbat sailekin batera egindako lanaren esparruan, Udalean guztiz sartu da erosketak publiko etikoak.

- Udaleko Berdintasun, Ingurumen eta Gizarte Ongizate sailekin batera lan egin dugu, instrukzio bat egiteko. Instrukzioa Gobernu Batzarrean onartu da, eta agintzen duenaren arabera, Udalak egingo dituen erosketak eta kontratazio guztietan gizarte, ingurumen, etika eta berdintasun irizpideak sartu behar dira, nahitaez.
- Intraneteko atari batean informazio osoa jaso da, erosketetan eta kontratuetan erosketak publiko etikoko klausulak nola sartu jakiteko (adibideak, enpresen zerrendak, eta abar). Atari hori ikusgai dute udaleko enplegatu guztiek.
- Ingurumen Sailarekin batera, gidaliburu bat egin dugu, erosketak eta kontratazio txikietan erosketak etikoak eta berdeari buruzko aholkuak emateko.
- Bidezko merkataritzan eta erosketak publiko etikoan lan egiten duten GGKEekin lankidetzan, bi orduko gutxienez prestakuntza ikastaro bat eman zaie pertsona gakoiei, alegia, etika klausulak sar daitezkeen kontratazioak eta erosketak egin ohi dituzten pertsonen (catering zerbitzuak kontratatzen dituztenak, besteak beste).
- Lankidetzara Atalean, urtero, erosketak handien (lehiaketak eta lizitazioak) gutxienez hiru baldintza agiri aztertu dira, erosketak etikoko klausulak zenbateraino sartzen diren ikusteko segimendua egitearren eta aholkuak ematearren.
- Planaren indarraldiaren amaierarako, egoki

diren erosketen eta kontratazioen % 80tan sartu dira erosketak etikoaren klausulak.

- Donostiako Udalak Lankidetzara Atalaren diru laguntzetarako partida banka etikoaren kontu edo funts batean utzi du (banka etikoak zerbitzu hori eskaintzen hasi denetik aurrera).
- Plan honen indarraldiaren amaieran, dokumentu bat egin eta zabaldu da. Dokumentu horretan jaso eta sistematizatu da Donostiako Udalean egindako erosketak publiko etikoaren esperientzia (sailen arteko koordinazio prozesua, instrukzioa, klausulak nola sartu erakusteko adibideak, eta abar).

C. 2. Datuetarako sarbidea eta gardentasuna hobetu dira, herritarrek errazago izan dezaten lankidetzako politika publikoaren segimendua egitea.

- Urtero, aurrekontuak onartu eta gero, informazioa zabalduko da prentsaurrekoan eta webgunearen bitartez, eta Lankidetzako Udala Kontseiluan jakinaraziko da.
- Lankidetzara funtsen zein ehuneko bideratuko den herritarrei jakinarazteko orduan irizpideak bateratzeko neurri gisa, Donostiako Udalak Euskal Fondoari proposatu dio berriz egin dezala eztabaida, % 0,7aren kontabilizazioa guztizko sarrerak kontuan hartuta egitea berriz hausnartzeko; eta finkatutako guztizko aurrekontua erabiltzea proposatu zaio, % 0,7aren aldarrikapena egin duen elkarte mugimenduak eskatzen duen bezala.
- Plan honen indarraldiko lehen urtearen amaieran, informazioa emateko erakusketak erakargarriak eta ulerterrazak egin dugu.

Erakusketa horretan, herritarrei aurkeztu dizkiegu Lankidetzata Atalak diruz laguntzen dituen proiektuak eta programak. Erakusketa eramangarria izango da, eta urtean zehar hainbat instalazio publikotan jarriko da ikusgai (kiroldegia, kultur etxeak, herritarrentzako informazio guneak, eta abar), ahalik eta jende gehienengana iristeko xedearekin. Urtero berrituko da, babesten ditugun programei buruzko informazioa eguneratze aldera.

- Urtero, lehen hiruhilekoan, oroitidazki zehatza —azalpenen zatia eta ekonomia gaiei buruzko zatia— aurkeztu eta aztertu dugu Lankidetzako Udal Kontseiluan, eta Lankidetzata Atalaren webgunearen bitartez zabaldu dugu. Oroitidazkiarekin batera, gida planaren segimendu txostena ere eman dugu.
- Urtero, lehen hiruhilekoan, urteko plan operatiboa aurkeztu dugu Lankidetzako Udal Kontseiluan, eta Lankidetzata Atalaren webgunearen bitartez zabaldu dugu. Plan operatibo horretan azaldu dira aldi bakoitzeko ezarritako emaitzak lortzeko beharrezko diren ekintza zehatzak, eta horretarako zer baliabide esleitu den eta zein pertsona edo sail arduradun izendatu den ere jaso da.
- Plan honen indarraldiko azken hiruhilekoan, planaren kanpo ebaluazioa egin da. Lan horretan tartean izan dira dagokien eragile guztiak, eta Lankidetzako Udal Kontseiluan aurkeztu eta webgunean zabaldu da, gero.

C.3. Donostiako Udalak, oro har, ageriko egin du herri sahararra babesten duela.

- Herri sahararrari laguntzeko eta haien eskubideen aldarrikapen politikoa egiteko gutxienez erakunde adierazpen bat onartu da osoko bilkuran.
- Otsailaren 27an, urtero, bandera sahararra jartzen dugu udaletxean, Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoaren aldarrikatu zen egunaren urteurrena ospatzeko.
- Plan honen amaieran, gutxienez bidaia bat egin da errefuxiatu sahararren Tindoufeko

kanpamentuetara, Udaleko talde politiko guztietako eta hedabideetako ordezkariekin. Bidaiaren ondoren, Donostiako Udalak emandako babes politikoa berri zabaldu dugu.

C.4. Donostiako Udalak, oro har, ageriko egin du palestinarrek babesten dituela.

- Palestinarrei laguntzeko eta haien eskubideen aldarrikapen politikoa egiteko gutxienez erakunde adierazpen bat onartu da osoko bilkuran.
- Azaroaren 29an, urtero, Palestinako bandera jartzen dugu udaletxean, palestinar herriaren nazioarteko eguna ospatzeko.
- Planaren amaieran, gutxienez bidaia bat egin da palestinarren lurretara, Udaleko talde politiko guztietako eta hedabideetako ordezkariekin. Bidaiaren ondoren, Donostiako Udalak palestinarren giza eskubideak berma daitezten emandako laguntzaren berri zabaldu dugu.
- Palestinarren borrokari zuzenean lotutako gutxienez sentsibilizazio jarduerak egin dugu.

C.5. Baliabide publikoak modu eraginkorri- goan erabiltzea lortuko dugu, erakundeen arteko lankidetzari esker, Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko kasu honetan.

- Urtero, gutxienez sentsibilizazio jarduerak batean eta prestakuntza jarduerak batean lankidetzan aritu dira Udaleko Lankidetzata Atala eta Aldundiko Lankidetzako Zuzendaritza.
- Erakundeei eta/edo instituzioei aukera eman zaie aipatutako bi erakundeekin bilera edo topaketa bakarra egiteko, baldin hala eskatu badute.

C.6. Udaleko komunikazioko profesionali prestakuntza eman zaie, munduko Hegoko herriei loturiko gaietako mezuen eta irudien tratamenduaren gainean.

- Udaleko berriak eman ohi dituzten hedabideetako kazetariari gosari bat eskaini zaie,

GGKEen Koordinakundearekin lankidetzan antolatuta, GGKEek erabiltzen duten Irudi eta Mezuen Kodearen berri emateko, eta elkar ezagutzeko eta esperientziak elkarri kontatzeko lagunarteko espazioa sortzen laguntzeko.

- GGKEen Koordinakundearekin lankidetzan, prestakuntza ikastaroa eman zaio Udal Gobernuako komunikazio taldeari, Irudi eta Mezuen Kodearen berri emateko eta esperientziak elkarri kontatzeko.

D) Helburu estrategikoa:

LANKIDETZAN ETA INTERNAZIONALISMOAN LANEAN DIHARDUTEN DONOSTIAKO GGKEAK ETA GIZARTE MUGIMENDUAK INDARTZEA

D.1. Lankidetzaren arloan lan egiten duten Donostiako erakundeetako langileen (liberatuak edo boluntarioak) prestakuntza eta gaikuntza hobetu da.

- Urtero gutxienez prestakuntza ikastaro bat programatzen da. Ikastaroak gutxienez sei orduko iraupena izaten du, eta lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren arloan lan egiten duten pertsonentzat interesgarri diren gaiak buruzkoa izaten da. Ikastaroa Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan antolatzen da, baina ikastaroa programatu aurretik, kontsulta egiten da GGKEen Koordinakundearekin eta Lankidetzarako Kontseiluarekin, GGKEentzat interesgarrienak diren gaiak zein diren jakiteko eta gainjartzerik izan ez dadin. Ikastaroetan gutxienez 20 lagun izaten dira, eta horietatik 10 gutxienez gaiaren arduradun zuzen dira GGKEetan edo erakundeetan.
- Lankidetzako Udal Kontseiluarekin eta GGKEen Koordinadorearekin (genero taldearekin bereziki), bai eta Berdintasun Atalarekin ere, koordinatuta lan egin ondo-

ren, genero ekitatearen aldeko prozesuak errazteko mekanismoak ezarri dira, eskatzen duten GGKEek, batez ere hartarako nahikoa baliabide ez dutenek, balia ahal ditzaten.

D.2. Euskadiko GGKEen Koordinakundearen Gipuzkoako ordezkartzaren Donostiako egoitzari ematen zaion laguntza mantendu dugu.

- Urtero, GGKEen Koordinakundearekiko hitzarmena berritzen dugu, eta funtzionamenduaren eta bulegoan eta idazkaritza teknikoan herritarrei ematen zaien arretaren zati bat finantzatu dugu. Horrez gain, urtero, Donostian baterako sentsibilizazio jarduera bat egiten dugu, gutxienez, bai eta hitzartutako beste jarduera batzuk ere.
- GGKEen Koordinakundearekiko hitzarmenarako ematen dugun zenbatekoa mantendu edo gehitu dugu.
- GGKEen Koordinakundeari aukera eman diogu egoitza hiriaren erdialderagoko eta agerikoago udalaren lokal batera lekualda-

tzeko, herritarren eta GGKEen arteko harremana errazagoa izan dadin eta GGKEen mezuak eta jarduerak errazago zabal daitezzen.

D.3. Gizarte mugimenduen (internazionalista, feminista, ekologista, antimilitarista, arrazakeriaren kontrakoa...) eta GGKEen arteko topaketak eta sareak bultzatu ditugu.

- Diru laguntzen deialdiaren oinarriak aldatu ditugu, mota horretako partzuergoei eta sareei laguntzeko.
- Gida plan honen indarraldia amaitzerako, gutxienez topaketa bat egin da GGKEen eta gizarte mugimenduen artean, elkar ezagutuz eta gai komunei buruz eztabaida zezaten.
- Urtero, Zero Pobrezia plataformak urriaren 17ari lotuta edo beste kanpaina batzuetan egindako jarduerak babestu ditugu.

D. 5. Lankidetzaren arloan lanean diharduten erakundeei eta GGKEei Udalean egin beharreko izapide burokratikoak errazago egiteko aukera eman diegu.

- Eskatu duten guztietan, teknikariek lankidetzaren arloan lanean diharduten erakundeei eta GGKEei orientazioa eskaini diete, egin behar dituzten udal izapideak (aretoak erreserbatu, baimenak eskatu, eta abar) modu arin eta eraginkorrean egin ditzaten.





esker erakutsiak



Plan hau Donostiako Udalaren Lankidetzaren Ataleko lantaldeak egin du, Lankidetzaren zinegotzietatik ezarritako ildoan araberak, egin ere. Honako erakundeek eta pertsonak helarazitako ekarpenak ere txertatu direnez, bihoakie hemendik gure eskerrona. Zeren eta zuek gabe ezin izango baitzen hurrengo lau urteetarako udal lankidetzaren politika definitzen duen II. Plan Zuzendari hau gauzatu:

- Kontseilua osatzen duten erakundeak, batik bat Batzorde Iraunkorraren partaideak, bai eta aurreko Plana ebaluatzeko eta II. Plan Zuzendari honi ekarpenak egiteko lanburuetan parte hartu zutenak ere.
- Euskadiko GGKEen Koordinadora, batez ere eragin politikoko taldea, ahalegin handia egin baitu Planaren ekarpenak epe laburrean helarazteko.
- Euskal Fondoaren lantalde teknikoak, lagun eta hurbil agertzeagatik.
- Udalaren Berdintasun eta Giza Eskubideen Ataleko adiskideak.
- *una comunicación y gestión* kontsulta-enpresa, 2008-2011 Planaren ebaluazioan lagundu dutelako ez ezik, haiei esker asko eta asko ikasi dugulako.
- Ainhoa Beola Olaziregi, aurreko Lankidetzaren zinegotzia, eta Lankidetzaren I. Udal Planaren sustatzailea.

